


## Belate-Doneztebe arteko bide berriaren trazatuak laborantzaz lurrak hondatuko lituzke

Proiektuan dagoen bezala egitekotan, bide berriak Legasa parean dagoen Lakoizketako lurrak gogorki kaltetuko ditu. Izan ere, orain dagoen karretera zuzena aprobetxatu beharrean, bide berria laborantzaz lurretan barrena sartuko litzateke. Lakoizketakoa da inguru horretan baserritik bizi den familia bakarrenetakoa eta Jesus M<sup>a</sup> Argain, etxeko jaunak kontatu digunez, «*proiektu funtsik gabekoa dela bistan dagoenez,*

*Bertizarana eta Donezteben jende gehiena kontra dago*».

4



Gerardo DANBORIENA:

### Etxalarko Usategietako langilea

Hamabortz urte zituela hasi zen usazale lanetan. Usazalek sareekin hartzen dituzte usak, aspalditik heldu den manera beretsuan. Gerardok kontatu digunez, «*ehiztariek hegazia ikusi eta tiro egin nahi duten bitartean, guk isiltasuna behar dugu lanerako*». Eta kontu horretaz ez ezik bertze aferetaz ere hitzegin digu Gerardok.

3

### 6 Iritzia: Cultur 97: Turismoa eta Kultura

Aurten bigarren aldiz egin den Cultur programaren inguruko balorazioak.

### 27 Kultura: Nafarroako Trikitilarien IV. Txapelketa


Txapela Jone eta Joxe Mari Elgorriaga lesakarek irabazi zuten.

### 28 Kirola: Sarako XV. Kontrabandisten lasterketa eta Igeriketa txapelketa Beran

TTIPI TXARTELA: Erosi zeurea eta erabili!







# Turbo-Test Sistema

## Gidatzeko karneta ateratzea, orain erraxago

Teorika liburuekin ikastea zaila gertatzen baldin  
bazaizu, ORAIN, badugu sistema berria  
ordenagailu bidez ikasteko.  
Atseginagoa, erraxagoa.



Dena den, betiko sistemarekin ere segitzen dugu

## ELKAR eta LESAKA Autoeskoletan

**LESAKA**  
AUTOESKOLA

Albistur 39 - H

Tel.: 63 78 70

**ELKAR**

Saskaitz Plaza  
31700 ELIZONDO  
Tfnoa. 58 00 77

AUTO  
ESKOLA





DATUAK.....

❖ Landaburuko bordako Gerardo 15 urtetik hasita ari da sareetan lanean, orain dela 32 urte, hain xuxen ere.

❖ Etxalarko Lorpen lantegian ari bada ere, ez du Usategietakoa uzten. Hain hartua dauka ehizako bixkak, bertze hainbat bezala.

❖ Dagoeneko ehiza denboraldia abiatua da, eta larunbat honetan bertan Usategietako ehiza postuen enkantea eginen dute.

❖ Sarako ehizturiekin izandako arazoak aipatu dizkigu Gerardok, nahiz eta azkenaldian gauzak bere onera itzuli diren. «Eta horrela segi dezala».

👉 Gerardo DANBORIENA Etxalarko Usategietako Langilea

# “Sarako usazaleekin ere hartu-emanak zaintzea inportantea da”

**EGUN GUTITARA HASIKO DUZUE SAREZKO EHI-ZA DENBORALDI BERRIA. HORNITUA DUZUE BEHARREZKO JENDE TALDEA?**

Bai. Duela zenbait urte izan genituen zailtasunak. Jende berriak behar eta ez zen aisa harrrapatzen. Lehen base-rritarrak ziren denak, edo eta nekazariak, eta udazkenean aisago hartzen ahal zuten lan honetarako behar den denbora. Jendea industria lantegietara joatearekin, nekezago etortzen ahal da. Hala ere, hondarreko urteetan aski finkatua dago taldea.

**ZERK KEZKATZEN ZAITU GEHIEN, EHIZALDIARI BEGIRA: EGURALDIAK, USOZALEEN LANAK, USOAREN ETORRERAK?**

Lan egiten dugun usazaleon harreman onak mantentzeak. Bertze gauzatan bezala, hemen ere talde-lana da beharrezkoa. Eta horretarako langile guzien hartu-emanek lagunartekoak behar dute izan. Orain diren bezala.

**HARREMANEZ SOLASTU ETA, ZER MODUZKOAK DITUZUE SARATARREKIN?**

Onak. Horren adierazgarri da berriki elkarrekin egin dugun bazkaria, Etxalarren, Usategietako txabolan. Heldu den urtean, be-



«Herritar ikusleak eta ehizturiak errespetoz hartzen du gure lana».

rriz, Sarara joanen gara. Tarteka izan dira, lehen, arazoak, zenbat ordaindu behar zen eta ze baldintzatan lan egin behar zen adostu behar zenean. Hori, ordea, elkarrekin aritzen diren guzien artean gertatzen da. Azkenaldian, dena den, ez da deus berezirik izan, urte multzoa da gatazkarik gabekoa. Eta horrela segi dezala.

Bertako usazale taldearen barnean bezala, Sarako usazaleekin ere hartu-emanak zaintzea inportantea da.

**ZUEN INGURUAN HERRITAR FRANKO, IKUSLE NAHIZ EHIZTURI, IBILTZEN DA USATEGIETAN. NOLA KONPONTZEN ZARETE ELKARREKIN?**

Pozten naiz galde-modu honetaz. Zeren eta Usategietara hurbiltzen den jendearen eta gure artean elkar ezin eramanak izaten ahal dira, eta, behar bada, noizbait izan dira. Gure in-

teresak eta haienak ez baitira berdin-berdinak beti. Haiiek ikusi edo tiro egin nahi duten bitartean, guk siltasuna behar dugu gure lanerako. Baina, egia erran, giro ezin hobea bizi dugu urte hauetan denen artean. Herritar ikusleak eta ehizturiak errespetoz hartzen du gure lana. Ez, ordea, errespetatu bakarrik, batzutan lagundu ere egiten du, lanaz estu gabiltzanean sare inguruan lagunduz. Herritarrak sarezko ehiza berea bezala begiratzen du.

► *“Usategietara hurbiltzen den jendearen eta gure artean elkar ezin eramanak izaten ahal dira, eta behar bada noizbait izan dira.”*

TESTUA:  
PELLO APEZETXEA  
ARGAZKIA:  
JOXEMANUEL IRIGOIEN



# Belatetik Donezteberako errepide berriak laborantzak lurrak hondatuko lituzke

**Zoia eta Doneztebe artean eginen den karretera berria ez da Bertizarana eta Doneztebeko jendearen gustokoa. Izan ere, Legasa parean orain dagoen rekta aprobetxatu beharrean, Lakoizketa baserriko lurrak hondatuko ditu bide berriak, mendi zati haundi bat harrotuz, Legasako fabrikatik sartu-aterian ibiliko diren kamioien arazoa ez du egitan moldatuko eta lanen aurrekontua nabarmenki haundituko da, gainera. Lakoizketako bizilagunek, Bertizaranako kontzejuen eta Doneztebeko udalaren laguntzarekin, beraien alegazioak aurkeztu zituzten Nafarroako Gobernuan maiatzaren 27an. Oraindik erantzunik jaso ez dutenez, sinadura bilketari ekin diote.**


TESTUA: AITOR AROZENA  
ARGAZKIAK: KARMELE TOLOSA

**L**akoizketakoa da, Narbarten, laborantzatik bizi den familia bakanetako bat eta errepidea, proiektu honetan ageri den bezala eginen balitz baserriaren etorkizuna iluna ez ezik «hila» egonen litzatekeela uste du Jesus M<sup>a</sup> Argain nagusiak: «Etxea bi karretera haundiren artean geldituko litzateke eta lurrak lau zatitan banatuak».

Joan den mendean, gaur egungo errepidea egin zenean, baserriko lurrak erdibitu zituzten; gero, 50. hamarkadan, Legasako zubira zuzenean sartzeko bidea egin zen, berriz ere beraien jabetza zatituz; iaz, az-

kenik, zubi berrirako errotonda egin zenean ere Lakoizketako lurrak hartu zituzten.

Oraingoan, Nafarroako Gobernuak proposatutako trazu berri hori dago, «*batere logikarik ez duena*» Argain eta Eduardo Gil Bera, Narbartenko bizilagunen ustez, «*hagitzegarestiago izanen da Legasako rekta zabaltzea baino*». Bertzetik ez da kamioien trafikoa moldatuko, izan ere, «*Legasatik sartu eta ateratzeko ia kilometro bat egin beharko da Narbarte aldera errepide zaharretik. Egunero, Lesaka eta Legasa artean hainbat bidai egiten duten garraiolariak Donezteben aterako dira, kilometro gutiago eta xuxenagoak baitituzte. Honela ez da Doneztebeko Baztanzubiko ara-*



(1) Nafarroako Gobernuaren proposamenaren arabera.  
(2) Legasako kotura egiteko hiru aukera ezberdin aurkeztu dira.





## «Funtsik gabekoa dela bistan dagoenez, Bertizarana eta Donezteben jende gehiena dago proiektuaren kontra»

*Nolako erantzuna izaten ari da eskualdean burutzen ari zareten sinadura bilketak?*

Oraindik ezin da erran firmak zenbat izanen diren, Baztan eta Bortzirriak aldean oraindik egiten ari baita. Bertizarana eta Doneztebe inguruan gehiengo osoa dago Nafarroako Gobernuaren proiektuaren kontra, hori erraten ahal da egina de-

zoa moldatuko, trafikoa korapiloa izaten segituko du». Hori dela eta, dagoeneko Doneztebeko eta Baztango Udalen eta Legasa, Narbarte, eta Oieregiko kontzejuen laguntza jasotzen du Lakoizketako eskariak eta inguruko Herriko Etxeekin harremanetan jartzen ari dira, sinadurak biltzeaz gain. Jesus M<sup>a</sup> Argainek garbi utzi nahi du bera ez dagoela errepidea hobetzearen kontra, alde baizik. Gainera, berak proposatzen duen bezala, gaur eguneko errepidea zabalduko balitz ere, bere lurra hartuko lituzke.

*«Guz gata teknikoak—dio Eduardo Gil Berak—baina bistakoa da Legasako rekta aprobetxatuz, El Rio jatetxea pasatuta hasten ahal dela errepidea altuera hartzen, Oteizako bixkarra gainditzeko eta Doneztebeko Baztanzubia libratzeko. Proiektuaren arabera, berriz, Lakoizketa gainean altuera hartu ondotik, berriz ere Oteizako kaxkora jausten da».*

### Legasa eta Narbarte arteko «herria»

Nafarroako Gobernuak «aitzaki berriak» bilatzen ari

omen da errepide berriaren beharra erakusteko. Herrilantako Zuzendari Nagusiak, Bertzen izandako bilera batean, gaur eguneko errepidea, ustez sortuko zen herri baten barneko boulevard bat izanen litzatekeela erran zuen. «Horiek funtsik gabeko argudioak dira», Eduardo Gil Beraren ustez. «Lur eremu hori Lakoizketakoa da, eta norbaitek etxe bat egin nahi badu baimena eskatu beharko dio jabeari, ez da? Non daude eraikitzeko baimenak?, non promotoreak?, Hori herri 'fantasma' bat da». Orain dela 20 urte baino gehiago Legasako fabrika egin zutenean ere, aditu homin ziren horrelakoak, Jesus M<sup>a</sup> Argainek dioenez. «Legasa eta Narbarte, Burlata eta Atarrabia bezala izanen zela erraten zuten, dena bat, eta begira... Ez dakit nondik eta nora dioten hor herri bat eginen dela».

### Aspaldiko eskaera

Nafarroako Gobernuaren asmoaren kontrako jarrera ez da, ordea, oraingo kontua.

lakoiz. Hemen inguruan jendeak ezagutzen du afera eta erraxa da firma ematea, bistan baitago proiektua funtsik gabekoa dela. Bortzirriak eta Baztan aldeira joaten zarenean, ordea, gehiago esplikatu behar diezu, mapa erakutsi... Gero, normalean, konturatzen dira problemaz eta laguntza ematen dute, baina lana da. Auniztan ordu laurden pasatzen duzu firma bat lortzeko.

*Sinadura bilketa kanpaina akitu ondotik, zer asmo duzue?*

Nafarroako Gobernuak aurkeztuko du gu eta hemen inguruan gehiengo politikoa (Herriko Etxeak eta Bertizaranako kontzejuek, mozioren bidez) eta gehiengo soziala—firma eman duen jendea—beraien proiektu horren kontra dagoela era-




**«Gurea ez da pertsona konkretu baten eskaera. Inguruko Herriko Etxeak eta jendea bidegabekeria honen kontra daudela erakutsi dute, moziok onartuz, alde batetik, eta sinadura emanez, bertetik»**

Eduardo GIL BERA

1991n, Belateko tunelaren proiektua egin zenean, nahiz eta trazatua berez Zozaiari akitu, mapetan dagoeneko ageri zen lerrotan, Lakoizketako lurren barna tiratua. Legasako rekta zerbitzu bidea bezala ikusten zen eta horregatik, Jesus M<sup>a</sup> Argainek dioenez, «orduko NARBARTeko kontzejuek guk egiten dugun eskari bera egin zuten, Legasako rekta probetxea eta zabalteza, alegia». Iruñeko asmoak aunitz garestitutuko luke proiektua, esku pribatuan dauden lurra pasatzeaz

gain, mendi harrotze haundiak egin beharko baitira. Gainera, laborantza lurra hondatuko lituzke. Hori dela eta, Nafarroako EHNE sindikatua ere, trazatu berriaren kontra azaldu da, «serioski eta beharrik gabe, nekazal lurra hondatzen diuelako».

Lakoizketako bizilagunek, lanak hasi baino lehen—1998ko azaroan, Gobernutik erran dutenez—, beraiek eta udalek aurkeztutako alegazioei kontesta ematea espero dute. ■



pan ageri da nondik atera den argazki hau. Gorritz, trazatu berri dituko litzatekeen ageri da. Lakoizketako bizilagunen ustez, berriz kaxkoa igarotzeko, Legasako rekta aprobetxatu daiteke, hiru-ila bertan eginez eta behin El Rio jatetxea pasatu ondotik, erre-n-pixkan altuera hartuz joan (puntu gorrietan azaltzen den gisara, eheiti).



**GAURKOTASUNEN GAIA**

**Cultur 97: Turismoa eta Kultura**

**Ekitaldiak loturarik gabe gelditu dira, ez baita inongo esplikaziorik eman**



Garbiñe SARASOLA  
Lesakarra

Lesakan denetik pixkot izan da, dantzak, herri-kirolak, musika...

eta ekitaldi guziak hagitz politak izan dira, baino gaizki antolatua zegoela uste dut, herriko jendeak ez baitzekien deus ere. Ez dakit noren errua izan den, baino aspaldi atera zuten liburuskata batetik aparte ez da deus gehiago antuntziatu, eta jende aunitz etxean gelditu da enteratu gabe. Gainera, herri-kirolak eta txistulariak egon ziren egunean partidua zegoen aldeberean, eta jendea harat joan zen.

Tanturumairu dantza taldearen saioa ongi ateri zen; ikusleen artean gehiena herriko jendea zen, baino turistak ere ba omen ziren, kamarakin eta... hala ere ez dakit zenbaterainoko turismoa dagoen Lesakan horrelako egun batean arratseko 8etan.

Nere ustez egin diren gauzek ez dute preziskiki Lesakako kultura isladatzen, eta pixkot loturarik gabe gelditu dira, ez baita inongo esplikaziorik eman. Etortzen diren turistek gauza sueltoak ikusi dituzte, ezin dituzte hoiak Lesakako historia edo ohiturekin lotu. Turismo bulegoetan zer informazio jasotzen duten ez dakit, baino...

**Jendearen artean gehiena leitzarra zen eta kanpotar gutxi ikusi nituen**



Unai ZABALETA  
Leitzarra

Leitzanegin diren ekitaldietatik aizkolarik gazteen Euskal herriko

txapelketan egon nintzen, eta egun berean, gauean, diaporamak bota zituzten. Hori izugarri gustatu zitzaidan, herriko kirola eta beste gauzei buruzko irudi eta musika nahasketa zoragarria izan zen, oso aberasgarria. Bi ekitaldi hoietara behintzat jende dexente azaldu zen, batez ere diaporamara. Nahiz eta euri pixkot ere hasi zuen jendea ez zen mugitu eta izugarriko txaloak jo zituen. Jendearen artean gehiengo leitzarra zen eta kanpotar gutxi ikusi nituen. Ez dakit antolatzaileek ze balorazio egingo duten baino ez zait iruditzen kanpoko jendea espreski ekitaldi hauek ikustera etorri denik.

Neri printzipioz Leitza, Elizondo, Lesaka eta herri hauetan horrelako gauzak antolatzea oso ongi iruditzen zait, eta honek herriak ezagutzera ematen baditu eta turistak erakartzen baditu, ba aurrera, dudarik gabe. Gauza da nola asmatu, nola ailegatu jende horrengana.

Bestalde, programan antzerkia edo horrelakoren bat sartuko nukite hainbeste kirolen partez.

**Nik atera ditudan kontuen arabera 6.000 pertsonatik goiti ibili dira ekitaldietan**



Manolo IIZARDI  
Beritzko Partzuergoa

Gan den urtean egin zen hemen lehenendabiziko aldiz

Cultur programa, eta aurten Nafarroako mendialde guztira zabaltzea aukera ona izaten ahal zela-eta, Leitza ingurura eta pirineo aldera hedatu da programa.

Aurten ekitaldietara iaz baino jende gehiago hurbildu da, eta beharbada kalean egin direnek izan dute arrakasta gehien; herri-kirolak, artisau erakusketak, dantza saioak... eta Elías Garraldaren margo erakusketatik ere jende aunitz pastu da.

Nik atera ditudan kontuen arabera, erakusketak kontuan hartuta, 6.000 pertsonatik goiti ibili dira ekitaldietan: jende kanpotar aunitz eta bertakoak baita ere. Halere, saioen eta herrien arabera kanpotar gehiago edo guttiago ikusi dira.

Turistak informatzeko landetxetan, hoteletan, kanpinetan... publikazioak banatu dira, eta komunikabideetan ere ekitaldien berri eman da. Gehienbat turismoari zuzendua dagoelako ez dugu kartelik paratu herrietan, batez ere turismo bulegoetan egin dugu propaganda. Baina dudarik gabe hemen bertako jendearekin kontatu behar dugu.

LEGE GORDAILUA: NA-1324/85  
FRANKEO ITUNDUA: 34/79  
TIRADA: 6.500 ALE

Argitaratzailea: ttipi-ttapa  
Herriko Etxeko Plaza, 1  
31780 BERA  
Tfnoa: 63 11 88  
Faxa: 63 12 91

Internet:  
http://www.encomix.es/ttipi-ttapa  
e-mail:  
ttipi@encomix.es  
ttipi@mail.sendanet.es

Zuzendaria: Joxemanuel Irigoien. Publizitatea: Miren Karmele Tolosa. Erredakzioa: Aitor Arozena, Asier Gogorza, Joxemanuel Irigoien. Administrazioa: Amaia Goia. Erredakzio taldea: Pello Apezetxea, Juainas Paul, Kristina Boan, Bittori Telletxea. Berriemaileak: Joseba Azpiroz, Esteban Arozena, Juana Mari Saizar, Ainhoa Mutuberria, Iban Isasi, Txema Aldabe, Patxi Otxandorena, Ixabel Maia, Josune Etxebeste, Pablo Mendiburu, Joseba Ugarabide, Aizia Olaizola, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Mikel Gerendiain, Jacqueline, Elixabet Iturria, Garbiñe Maiz, Oskar Txoperena, Pello Apezetxea, Aitor Arozena, Kristina Boan. Kolaboratzaileak: EHNE Nafarroa, Mikel Bezunartea, Joxe Javier Etxeberria...

Inprimategia: Graficas Ona. ttipi-ttapa ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako erranen eta eritzien erantzukizunik.

Erakunde Laguntzaileak: Bera, Leitza, Goizueta, Areso, Baztan, Urdazubi, Zugarramurdi eta Sarako udalak, Bortziritako Euskara Mankomunitatea, Malerreka Zerbitzu Mankomunitatea, Zugarramurdiko Akelarre Elkarre...



Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du

**ARTEKARI TALDEA**

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

**LESAKA:**

- Egunero, arratsaldeko 4,30etatik 8etara.
- Asteazkenetan, goizeko 10etatik aitzinera ere bai.

Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6, Tfnoa: 63 70 50

**BURLATA:**

ARTEKARI, S.L., Tfnoak: 133328-133346. Faxa: 133713  
Non: La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA

- Langile Autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitopenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bideragarritasun planak eta aurrekontuak



# MUEBLES AMETS

mobleak orokorrean

Bidasoa 45-60  
Tfnoa: 948-630537  
**BERA**



## BAZTAN - BIDASOAKO EUSKALTZALEEN TOPAKETAK



Urriaren 7tik Azaroaren 4artik  
Astearte eta Ostegunetan 19,30 21,30  
IZENA EMATEKO EPEA:  
Irailaren 15etik 30era

INFORMAZIOA EUSKARA ZERBITZUETAN

Baztan	58 00 06
	58 10 07
Bortzirik	63 41 25
Malerriko	45 17 46

ANTOLATZAILEAK:

BAZTAN, BORTZIRIK ETA MALERRIKO  
EUSKARA ZERBITZUAK

LAGUNTZAILEAK:



Eskualdeko Euskara Zerbitzuek urria eta azarorako Topaketa hauek antolatu ditugu. Topaketen helburua hirukoitza da: batetik, Baztan-Bidasoako euskaltzaleen bilgunea sortu nahi dugu; bertzetik euskaltzaleei euskararen erabilera areagotzeko eta normalizatzeko egiten ari diren zenbait ekimen karrikaratu eta gai hauen inguruan eztabaida eragin nahi dugu eta; azkenik, euskaltzaleei informazio teknikoa eta prestakuntza teknikoa eskainiko diegu.

Topaketen egitaraua zabala izanen da. Bertzeak bertze gai hauek jorratuko ditugu: euskararen historia, gazteen euskararekiko jarrerak, eskualdeko komunikabideak, herri txikien



 Paula KASARES Euskara Teknikaria

## Emakume eskopeteroak eta tradizioa



Litroka isuri da tinta egunotan Irun eta Hondarribiak alardeetan emakumeek eskopetero

gisa parte hartzearen gainean. Egunkariak bi alde bereizi dituzte: emakumeak eta alarde tradizionalaren aldekoak. Izan ere, Irunen, bi desfile izan ziren: bata ofiziala, emakumeek egin zutena, eta bertzea alternatiboa, alarde tradizionalaren aldekoek egin zutena.

**Aldatuko ez bagenu tradizioa anakronismo hutsa bihurtuko litzateke, denbora ilunetatik berreskuratutako ospakizun funtsagabea.**

Ez da nire asmoa bete-betean emakumeen alde jotzea. Areago ere, ez dut ongi ulertzen nolatan gogaitzen ahal diren eskopeta hartu eta herrian barna desfilea egitera. Niri, emakumea izaki, eskopeteroz jantzita desfileak ez lirateke loa galaraziko, zerenahi ospatzen delarik ere. Lerro hauek idaztera bultzatu nauena aldiz, saltsa horretan TRADIZIOA (usadioa) hitza nahasirik ikustea izan da. "Alarde tradizionalaren aldekoek" tradizioaren begirale zintzotzat dute beren burua: tradizioa mantendu behar da, zaindu behar da, "usadio historiko baten defentsa" baita -Hondarribiko Alkatearen hitzetan-. Baina Tradizioa ez da zerbait egonkorra, behiala ger-

tatua aldika berbera errepikatua. Tradizioa ez da go egina eta akitua, tradizioa egin egiten da, berregiten da. Guri, bizi garenoi, dagokigu tradizio hori hezurragitzea eta horren antzezleak izatea. Tradizioa bizia da, ez da berazko kutxa batean gordetako momia, denborak arrastorik utz ez diezaion arretoa haundiz zaindu beharrekoa. Aldatuko ez bagenu, tradizioa anakronismo hutsa bihurtuko litzateke, denbora ilunetatik berreskuratutako ospakizun funtsagabea. Tradizioa baliogarria da gu izateko balio digulako, geuk berregiten baitugu buruantzepen gisa. Betikoan oinarriturik Tradizioan aldaketak egiteko gai ez bagina, deus guti aitzinatuko genuen.

Eta emakumeoi dagokigularik, ez alkate, ez udaltzain, ez kamioilari, ez joaldun, ez torero ere izateko aukera ez genuke izan. Tradizioa ez da egonkorra, galera eta irabaziak ditu gurekin batera aldatzen delako, geuk egiten dugulako. Ez dezatela bada, Tradizioa aitatu emakumearen baztertzeara justifikatu eta zurrizteko. Zer inporta du ehun urte hauetako alardeetan emakumerik ez bazen eskopetero gisa ibili? Kontutan hartu beharrekoa da egun badi-rela zenbait gizon-emakume hori aldatu nahi dutenak. Ez ditzala tradizio zurrunen indarrak gure nahiak eta eskubideak aldarazi, bai ordea gure nahia eta eskubidearen indarrak tradizioa gaurkotu.

 Mattari ALZUARTE Aniztik

## Turistak gan eta usoak etorri



Uda partearen akabailan gaude eta turistak lekutu bezain laister haizegoak ehizlariek a-

retzen ditu, uso pasa datorrenaren seinale. Aspaldiko elea eta kezka izan da eskualde honetan sortu nahi izan zen proiektu turistikoa. Urteak baditugu entzuten (Bertziko Kontsortzioarengandik), afera hauetaz solasteko antolatuta behar direla ihardunaldi batzuk, denen artean gure lurralde honen etorkizunaz eztabaidatzeko, baina oraindik ez dute fitxik ere egin. Urteak pasatzen dira eta proiektu turistiko arrazionala zein den oraindik ere ez dago deusere garbi. Ze turismo mota nahi dugu? Ze azpiegitura sortu behar da? Gure kultura nola zaindu behar dugu? Norabiderik gabeko garapen turistikoak gure ondasun natural eta kulturalari mineginen dio luzera, ziur, baino ez turismoak bakarrik, baita gure eguneroko bizitzakere. Udaletako euskara politikak, talde kulturalen egitasmoak, ostaturako giroak, Kirol eta Gazte Elkartearen ekintzak, eskoletan, lagunekin eta etxean egiten ditugun eguneroko gauzetan, denetan garrantzitsua da euskararekiko sentsibilizazioa. Gure lan haundiena eta arazo larriena hemen daukagu, *gure inguruan*, bakoitzaren baitan dago. Turismoari dagokionez,

hona direktzue batzuk nire ikuspuntua adierazteko: -%80 Euskalerriko turismoa denez (eta hori bultzatu behar denez) proiektu turistikoa euskaldun jendearengatik begira diseinatzea. -Gure ondasun haundiena inguru eta kultur bizitzan oinarritzen badugu, udaletxetako euskal kultur politika indartzea, bertako talde kulturalari egiazko indar ekonomiko eta laguntza emanez (beraiek direlako egiazko kultur bultzatzaileak urte osoan). -Azpiegitura sendoak sortzea gure nortasun eta His-

**Urteak pasatzen ari dira eta proiektu turistiko arrazionala zein den oraindik ere ez dago deusere garbi. Ze turismo mota nahi dugu?**

toria guri eta gainontzeko jendeei jakinarazteko. Amairuko Historiaren museo, Zubietako Zarpantzar museo, Etxalarko Usategietakoa, Euskararen museo, Lesakako Olentze-orena... eta sor daitezkeen bertze motako iniziatibak "turismo kultural" garbi bat zabaltzeko eta eraberean Ingurugiro ondasunak aprobetxatzeko gestio arrazional bat eginez. Nire ustez ardatz hauek dira Turismo edota ez turismotik bizi diren jendearendako baliabide hoberenentarikoak, Euskaldun guztiek aprobetxatuko luketena, bertako nahiz kanpoko. Esperatu dugu ihardunaldiak behingoz antolatzea eta bertan arlo honetako etorkizuna finkatzea.



PRENTSATIK BILDUTAKOAK

11 GALDERA LABUR



Nafarkaria 97-IX-5

«Euskara mantendu bada, zekitenek transmititzeko borondatea izan dutelako izan da».

Patxi LARRETXEA eta Fernando MIKELARENA  
Bidasoa Ikerketa Zentruko ikertzaileak  
Nafarkaria 97-IX-5

«Berez abertzale eta lasaia den herri bat, azkeneko egunetan bere sentimentuak eta izaiera gogorki minduta azaltzen da, Ermuako izpiritua bermatzen saiatzen direlarik UPN alderdia eta Leitzan beren monagilo diren UUL taldeko partaideak».

Mikel ILARREGI  
Leitzako alkatea  
Egin 97-IX-4

- ◆ **Amerikak dituen gauza onak?**
- ◆ Solteroendako hura hobekiago, bizitzeko hemen.
- ◆ **Hola bizitzeko, zer egin behar da?**
- ◆ Aunitz bizitzen ahal dira ni bezala, baina jendeak lotzen du bere burua, irentsia da.
- ◆ **Ezkondua edo ezkongabea?**
- ◆ Arrimatuta bizi.
- ◆ **Jateko gustokoen duzun platera?**
- ◆ Lehenbiziko platera zopa, gero umerria.
- ◆ **Denbora pasatzeko modurik hoberena?**
- ◆ Frontona eta...(aisa jakiten ahal da).
- ◆ **Euskaldunak nola ikusiak daude munduan?**
- ◆ Hobekienak, ixkin guzietan euskaldunak maite dituzte.
- ◆ **Ze lagun nahiago, mutilak edo neskek?**
- ◆ Emakumeak, konfiantza gehiago ematen dute eta aisago solastu.
- ◆ **Baserrian bizi edo herri haundian?**
- ◆ Ni, Oitzen hobekiena.
- ◆ **Amets bat?**
- ◆ Hola bizitzekotan, ehun urte artio bizio.
- ◆ **Arkupeak-ek antolatutako bidaietan edo hire kontura?**
- ◆ Nik nahiago nire kontura, libreago hobe.
- ◆ **Hire buruari galdera bat?**
- ◆ Hilabete honetan Mexikora joanen naiz, norbaitek etorri nahi badu...



Jose M<sup>a</sup> LIZASOAIN  
"Buruzuri"  
Oiztarra

**Xingil**  
ileapaindegia

631462 • Altzate I • BERA

SAS KAITZ  
fontanería calefacción

Empresa colaboradora de  
**REPIJOL**  
AUTANO

**Era guzietako instalazioak:  
Etxekoak, industrialak...**

Santiago 55 • Tfnoa: 581171 • ELIZONDO

**NAFARROA**

**NAFARROAKO  
PRODYKTY  
BEREZIAK**

ELIKAGAIAK  
Gazta, Txistorra, abatekiak,  
goxua, barazkiak, ardoa,  
patxarana eta likorrak  
ESKULANAK  
Egurra, buztina, burdina, zumitza  
**Astelehenetik Igandera Irekia**  
Altzate 14, Tfnoa: 631151 • BERA

**SEMPER AUTOESKOLA**

Autoeskolan bertan  
14 urterekin lortzen ahal  
duzu zure 49 c.c.  
motorraren lizentzia  
**Examinarik gabe!**

Eztegara Pasealekua, 18 • BERA  
Tfnoak: 630298 (Bera) eta 637206 (Lesaka)

**DROGUERIA MOLINERO**

• DROGERIA • LURRINDEGIA • OPARIAK •

*Bestetako espartzinak eta  
espartzin beltzak 200 pezetatan*

Eztegara 19 • ☎ 63 02 40  
BERA



## «Seindea» Zerbitzu Kooperatiba sortu dute 35 emakumek

Eguneroko bizia egiteko laguntza behar dutenak zainduko dituzte

Nafarroako mendialdean, eguneroko zereginetarako laguntza behar duen jendeari asistentzia eta zainketa pertsonala eskaintzeko helburuarekin sortu da «Seindea» Zerbitzu Kooperatiba.

Kooperatiba hau osatzen duten 35 emakumeek haurrak, ezintasun fisiko eta psikikoak dituzten gazte eta helduak eta adinekoak zainduko dituzte, osasun eta etxeko lanak eginez eta laguntza psikologikoa eskainiz. Emakume hauek, Cederna-Garalur agentziak garatutako APEF-MYRI-NA proiektuan bere gaitasunak landu dituzte, formakuntza programa zabal baten bitartez.

### ADINEKO JENDEA, GERO ETA GEHIAGO IZANEN DA

Etorkizun hurbilari begira, adineko jendea gero eta gehiago izanen dela dirudi, izan ere gero eta haur guttiago jaiotzen den bitartean, bizi-itxaropena gero eta haundiagoa da. Adineko jende multzo honek zainketak beharko ditu:



Adineko jendea zaintzea izanen da Seindea kooperatibako langileen zereginetako bat Artxiboa

kasu larriengan erresidentzian sartu beharko dira, baina adituen ustetaz, bere buruaz baliatuzeko gai direnak beraien etxean zaindu behar dira. Izan ere, adineko jendeak nahiago du bere etxean egon, herrietan gehien bat, eta erresidentzian sartzeak inbertsio gehiago eskatzen ditu. Gainera, bizimodu berriengatik, familiarendako gero eta zailagoa egiten zaio adi-

nekoa zaintzea (bikotea kanpoan lanean...).

Eskari honi irtenbidea emateko eta zonaldean emakumea lan munduan sartzeko inentzioarekin eratu da Seindea kooperatiba. Eraberean, 'hurbileko zerbitzuak' profesionalizatu nahi dituzte, Nafarroako mendialdean asistentzia zerbitzua hobe-  
betuz.

Seindea kooperatibaren bulegoa Irurtzungo

Trinidad karrikaren 12. zenbakian kokatuko da eta astelehenetik ortziralera zabalduko dute, goizeko 9etatik 1,30etara eta arratsaldeko 4,30etatik 7,30etara (500218 telefonoa).

Seindeatik adierazi dutenez, «urteko egun guzietan lan egingen dugu, eguneko hogeita lau orduetan. Ordu betetik hasi eta egun osoa bitarte, gauak eta besta egunak barne».

### Gizarte laguntzaile berria Bortzirietan

Mikel Saralegi da Bortzirietako Oinarrizko Gizarte Zerbitzu Mankomunitateko gizarte laguntzaile berria. Hemendik aitzinera, alde zurretik ordua eskatu beharko da berekin gelditzeko, Bortzirietako edozein herritik deitzen dela ere. Gizarte Zerbitzuko Mankomunitateko telefonoa 635036 da.

### TURISMOA

#### Baztan-Bidasoaren Eguna ortziral honetan ospatuko da Donostian

Ortziral honetan, irailak 12, Baztan-Bidasoaren Eguna ospatuko da Donostian, Bertizko Turismo Partzuergoak antolatua.

Egitarauari dago-kionez, goizeko 10etan txistulariak abiatuko dira. Ordu bete beranduago, 15 artisau, 25 artisau janari-edarigileak, talo egileak eta turismo bulegoa bilduko dituen feria zabalduko da. 12etan Sunbillako trikitalariak arituko dira. Arratsaldeko 5etan Berako Larrakaitz txarangaren txanda izanen da. 6,30etan Gure Txokoako dantzarien saioa ikusgai izanen da eta 8etan Baztango dantzariak arituko dira. Gaueko 9etan, azkenik, zikiro-jatea izanen da, zugarramurdiarrek prestatua.

Ekitaldi guziak Konstituzio Plazan eta inguruan burutuko dira, Trinitate Plazako zikiro-jatea izan ezik.

**Dia** % **Autozerbitzua deskontua**

**Hamabostero ofertak**

Zatoz eta ikusi

Eztegara, 6 • © 63 14 03 • BERA



**M. Ubiria**  
EXKABAZIOAK

Bittiria 8  
Tfnoa.: (948) 637214  
Mug.: 908 779641

LESAKA



# Alkaiagatik Berarat ura ekartzeko obra aurten hasi eta akautuko da

Matxaingo depositoaren osagarri bihurtuko da poligonokoa

ASIER GOGORZA

Azken bizpahiru urteetako ur arazoak saihesteko asmoz, udalak ahobatez onartu du Alkaiagako poligonotik herrira ura garraiatzeko obraren proiektua. Gaur egun herria urez hornitzen duen Matxaingo depositoak, halere, bere lana egiten segituko luke obra egin ondotik, eta larrialdi kasuetarako bakarrik erabiliko litzateke Alkaiagakoa.

Manuel Iriarte alkateak azaldu digunez obra hurrengo bi hilabete hauetan adjudikatuko zaio enpresaren bati, eta bere kalkuluen arabera, «urtea akautu baino lehen obra egin izanen da, gauza txikia baita. Denbora gehien tramiteekin joaten da. Poligonotik Alkaiaga auzorainoko obra egin behar da soilik (200 bat metro), eta handik herriraino heldu diren tuerberiekin enpalmatu. Ura markatzeko kontadore berri a ere paratu beharko da».

Uraren arazoari irtenbidea ematea aspaldiko beharra da eta Matxainen presa bat egitea erabakia zegoen hasiera batean, «baina Nafarroako Gobernuak ez zizun utzi, gastu handia zelakoz» dio alkateak.



## Irailaren 21ean korrituko da Agerra Mendi Taldeak antolatutako Mendi Krossaren bigarren edizioa

Irailaren 21an egingen den Mendi Krossaren bigarren edizioa prestatzen ari dira Agerra Mendi Taldekoak. Berako mendietan barna 14 kilometro inguruko ibilbidea egin eta gero (Santa Barbara-Malet-Zumalko) herrira sartuko da laisterketa, eta Agerra auzoan izanen du helmuga. Izena emateko 500 pezeta or-

daindu beharko da, eta kamiseta bat emanen diote partehartzaile bakoitxari. Emakumeak eta gizonak, seniorrak eta beteranoak kategoria desberdinetan berexi dituzte antolatzaileek, eta joan den urtean lortutako 53,13 minutuko errekorra hausten duenari 10.000 ptako saria emanen diote.

## Anbulantzien arazoarentzako irtenbide bila

DYako boluntarioen zerbitzua desagertu zenetik irregulartasunak somatu dira ambulanzia zerbitzuan. Gaur egun Urbaser-Dragados enpresako ambulanzia dira Bortzirietaiko larrialdiak atzitzen dituztenak, eta Berarat etortzeko, adibidez, denbora gehiago egiten dute hutsik eriare-

kin Lesakako zentratu joaten baino. Arazo honi irtenbidea bilatzeko, Bortzirietaiko alkateek Cervera osasun kontseilariarekin biltzeko eskera egin dute, baina kontesta oraindik ez zaie ailegatu. Berako alkateak erran digunez, laister zonalde distribuzio berria egingen omen dute.

## flash

❖ **Lizentzia fiskala**  
Irailaren 1etik 15era arte, biak barne, jenduraren dago herriko etxeko idazkaritzan 1997ko urtarilaren 1eko Iharduera Ekonomikoen Erregistro edo Lizentzia.

❖ **Idazketa tailerra**  
Adierazpen eta idazketa tailerra eta eskulanean ikastaroa antolatzeko asmoa dute UXUA Emakume Taldekoek. Ikastaroen helburua, adin eta maila guzietan sormena jorratzea izanen da, poesia eta narrazioaren bitartez. Laister argibide eta zehaztasunak eman ez paperak aterako dituzte. Momentuz, apuntatzeko matrikula merke bat ordaindu beharko dela aitzintzen ahal dizuegu soilik.

❖ **Ilekuetako bestak**  
Asteondar honetan ospatuko dituzte Santakruz bestak Ilekuetan.

❖ **Peruko diapositibak**  
Ortziral honetan ez, hurrengoan (hilak 19), Andeetako Huascaran mendira goitu ziren Bera eta Arantzako espediziokideek hango berri emanen dute diapositiben bidez. Emanaldia Kultur Etxean izanen da, ilunabarreko 8etan.

**AHORRO-BERRI**

janaridenda

Legia 4 • BERA

Igande  
goizetan  
irekia

**ALZURI**

• Sukalde tresneria eta opariak  
• Landare eta loreak

Tel.: 63 03 70 • BERA



**KIROLAK ZELA**

Altzate 6, © 63 05 98  
BERA



# Herriak badu futbol zelai berria

- Abuztuaren 9an inauguratu zen ofizialki Mastegi zelaia
- Ehun milioi inguru gosta da eta belar artifiziala dauka
- Udaleko, Iruñeko eta Federazioetako agintariak agertu ziren

AITOR AROZENA

Uda honetako ekitaldirik aipagarriena izan da Mastegi udal futbol zelai berriaren inaugurazioa. Ekitaldian, Herriko Etxeko eta inguruko herrietako ordezkariak, Nafarroako Gobernuoak, Nafarroa eta Gipuzkoako futbol federazioetako lehendakariak eta Beti Gazteko agintariak izan ziren, bertzeak bertze. Herriko zortzi futbol taldeetako jokalariek ere zelairatu ziren.

Inaugurazioaren lehen zatian, aurrekoa dantzatu zuen ezpata-dantzarien kapitainak. Apezak zelaia bedein-katu zuen eta abesbatzak Beti Gazteren himnoa eta *Agur Jaunak* kantatu zituen. Agintarien solasaldien ondoren, ohorezko sarea burutu zuten Beti Gazteko bi jokalariek zaharrenean eta bi gazteen artean.

Gero, futbol partiduen txanda ailegatu zen. Ttikienetatik hasita, hainbat jokaldi eder ikusi ziren. Halere, ikusmin berezia sortu zuten haundien bigarren taldeak Gure Txokoaren kontra eta talde nagusiak Osasuna Promesas-en kontra jokatu zuten partiduek. Biak berdinetaz bukatu ziren.



## flash

❖ **Musika eskolan**  
1997-98 ikasturterako matrikulatu nahi duenak ortzirala, irailak 12, baino lehen eman beharko du izena Herriko Etxean, goizeko 8,30etatik 11etara.

❖ **Azoka Transhumanteak**  
hainbat bisitari ekarri zituen herrira. Izan zen zerikusia, zer probatu eta zer erosi abutzuko azken igandean, Nafar Bideak antolatutako merkatu berezian.

Inaugurazio eguneko zenbait momentu:

- 1 Ohorezko aurrekoa, agintari eta taldeen aitzinean.
- 2 Beti Gazteko lehendakariaren solasaldia, infantil taldearen aitzinean.
- 3 Ohorezko sakaeren protagonistak.
- 4 Osasuna Promesas eta Beti Gazteko talde nagusiaren arteko norgehiagokak ikusmin berezia sortu zuen.

Argazkiak: TELLETXEA

**ANA**  
**janaridenda**  
Bittiria, 41 • ☎ 63 79 44  
**LESACA**

**Lurrindenda**  
*Marian*  
*endiberri*  
**Estetika**  
Behoko Plaza 8 ☎ 637791 • LESACA

**ZALAIN**  
Zalain Auzoa  
☎ 63 11 06  
**BERA**  
EGUNEKO MENJUA ETA KARTA  
**Boda eta banketeak ematen dira**

**KATTU**  
ostatu - jatetxea  
Plater konbinatuak eta menuak  
☎ 627573 • LESACA



**ETXALAR**

# Bi etxalartar Nafarroako trikitilari txapelketako finalean

Partehartzaileen gehiengoa Bortzirietakoa izan zen

PELLO APEZETXEA

Abuztuaren 24an gauzatu zen, Lakuntzan, trikitilari txapelketa hori. Eta bertan, lehen aldiz, bi herritar ikusi genituen: Urritiko Jasone Mitxeltoarena eta Errekondoko Nagore Ansalas. Ez elkarrekin, baizik eta Lesakarrekin bikote eginez. Lehen saria lesakar bikoteak eraman bazuen ere, finaleko guziek itxura ona eman zuten.

## Tarazona eta Arantzazura bidaiak

Zortzi egunen barnean bi ateraldi egin ditu Etxalarko jendeak, abuztuaren 23an eta 31n. Tarazona eta Tuterara bat, Larraburua Elkartek antolatua. Ohitura den bezala, Elkartekoak ezezik, gazteagoak ere baziren, autobusako tokia ongi pro-



Etxalarko eta Sarako usazaleak, bazkalondotik

Argazkia: PELLO

bexteagatik. Arantzazukoa, berriz, urtero Arkupeak Elkartek antolatzen du. Oraindik argi ordu franko duen egunaz gozatu ahal izan zuten, batean eta bertzean, eguraldi ona lagun izan baitzuten.

## Ikasturte berria Landagain eskolan

Ikasturtea hasi berri da, irailaren 9an, nahiz eta hil honetan goizez soilik joanen diren haurrek. Irakasleei dagokienez, aldaera bakarra gertatu da aurtengoan,

Marianen ordean Ana Pintok hartu baitu 5. eta 6. zikloko lana.

## Etxalarko eta Sarako usazaleek bazkaria

Abuztuaren 30ean, Usategietako txabolan,

Sarako eta Etxalarko usazaleak elkartu ziren, bazkaldu eta solaskealdia egiteko. Duela hiruzpalau urtez geroztik biltzen dira, urte batez Saran eta bertzeaz Etxalarren. Sarez ehizatzen duten bertze usategiekoekin ere, Nafarroa Beherea eta Zuberoakoak, azken urteetan elkartzen dira, eta egun berean egokitu zaie hondarreko bazkaria.

## Ehiza denboraldian murgildu gara

Larunbatean, irailak 13, Usategietako ehiza postuen enkante edo subasta egingen da. Dagoeneko, herriko Ehizturi Elkartek sei postu bereganatu ditu, 450.000 pezeta ordaindu eta. Bertalde, ttoritoila ehizako egunak aitzinera doaz. Ehiza nagusitzen ari da herriko jendartearen solas-gaietan.

« **USOA** »  
NEKAZARI KOOPERATIBA  
Ganaduarentzat pentsurik egokiena  
Tfnoa: 63 52 14  
**ETXALAR**

**IRU BIDE**  
ERRETEGIA  
Tfnoa: 637127  
**LESAKA**

**EKAITZA kafetegia**  
COSARIAK, BERENDUAK, TERRAZA  
Lagunekin elkartzeko toki egokia  
Plaza Berria, 13 (948) 627547 **LESAKA**

**XATURETXEA**  
JATETXEA  
Tfnoa: 63 70 27 **LESAKA**

**Kixkur**  
ileapaindegia  
**Orain, pelukera berriarekin Izaskun Portu**  
Ordutegia:  
Asteartetik larunbatera, goizeko 9etatik 1etara eta arratsaldeko 3etatik 7etara  
© 637429 • **LESAKA**

**HERRIKO OSTATUA**  
Jatetxea  
Eguneko menua.....1.000 pta  
Haurren menua.....800 pta  
Paella, entsalada, sangria....1.500 pta  
Menu turistikoa.....1.800 pta  
...eta nahi duzuna *kartan*  
© 635290 **ETXALAR**  
1997ko uda  
Astegunetan afariak aurrez eskatuta bakarrik

**EROSLE**  
LESAKA  
Kalitate-prezio arteko orekarik hoberena  
**Frexkuena**  
zugandik  
hurbilago  
Bittiria, 67 - © 637264



**IGANTZI**



Argazkian ageri denez, adin eta klase guzietako txirrindulariak ibiltzen dira Igantziko ibilaldian

Arg.: Oskar TXOPERENA

# Igande honetan izanen da VII. Mendi-bizibleta ibilaldia

Herriko taldeak eta Biltoki elkarteak antolatuta

OSKAR TXOPERENA

Zazpigarren urtea jarraian izanik, bere lekua hartzen ari da poliki-poliki Igantziko mendi-bizikleta ibilaldia. 120 txirrindulari inguru bildu ziren iaz Juan Karlos Garro beratarrek

irabazitako edizioan eta antolatzaileek ez dute aurtengorako gutiagorik espero. Badira gainera zenbait aldaketa antolaketa dagokionez. Orain arte herriko mendi-bizikleta taldeak bakarrik antolatzen zuten, eta, aurtengorako, Biltoki elkartearekin elkarlanean egiten dute. Ibilbidea iazko bera izanen da, aldaketa txiki batzurekin. Dena prest bada, bai trofeoan bila heldu direnentzat, baita goiza bizikletaz pasatu nahi dutenentzat ere, denentzat.

Biltoki elkartearekin elkarlanean egiten dute. Ibilbidea iazko bera izanen da, aldaketa txiki batzurekin. Dena prest bada, bai trofeoan bila heldu direnentzat, baita goiza bizikletaz pasatu nahi dutenentzat ere, denentzat.


## Joan den astelehenean hasi zen ikasturtea

Xintxo-xintxo hasi zuten joan den astelehenean ikasturte berria Igantziko eskolan matrikulatutako 36 haurrek, bestak bitartean goizez ariko direnak eta gero egun osoz.

Urtero izaten da berrikuntzaren bat eskolan hasteko garaian eta ezin erran aurtengoak txarrak direnik, Igantziri dagokionez behinipein. Berrikuntza nagusia irakaslegoari dagokiona da. Orain arte hiru irakasle oso zuden eskolan eta lauga-

rrenak egun erdia Arantzan eta bertze erdia Igantzin pasatzen zuten. Hemendik aitzinera, ordea, laugarrenak ere ordutegi osoa beteko du hemen. Guretzat ezagunak diren Asun, Ana eta Rosak bertze urte batez segituko dute gainera eta, berriak idazterakoan behinipein, ez dugu laugarrenaren berrik, Enma etxalartarra Arantzara joan baita.

Badira animatuak egoteko arrazoiak, du-darik gabe.



## Pala txapelketako irabazleak

Josetxo Txoperena herritarra eta Imanol Telletxea Markatzene lesakarra izan ditugu aurtengo pala txapelketaren irabazleak, Jabier eta Juan Mari finalean gainditu eta gero.

Argazkia: Oskar

**Errekalde ostatua**  
Ortziraletan, 10etan Mus Txapelketak  
Telefonoa: 630259 - BERA

Zure ingurua klase guzietako insektuz (xomorro, zinaurre, armiarma, kukuxu...) eta arratoi-xagutzoz garbitu nahi baduzu, deitu! Gu arduratuko gara horretaz. Termita eta Polillen kontrako tratamendua

**BERA**  
DESINFECCIONES  
© 63 01 55  
BERA

**GOYA**  
JOSTAILUAK  
JANTZIAK  
OPARIAK  
ERREMINTAK  
Altzate, 5 • © 63 00 83 BERA

**BERA**  
Legarra, 9 • © 63 70 30 • LESAKA

**IGANDE GOIZETAN IDEKITA DUGU**

- Liburuak
- Papertegia
- Tabakoa
- Plastifikazioak egiten ditugu
- FAX publikoa
- Enkuadernatzeak
- Inprenta lanak

**Aranguren**  
Aroztegi mekanikoa

Tel.-Fax: (948) 63 72 58  
Tel.mug.: 908 -77 51 85  
Otsango industrialdea  
31770 LESAKA

- Leihoak
- Aurre-markoak
- Eskailerak
- Fabrikanteak gara

**ALDO OSTATUA**  
LESAKA



**ARANTZA**

**BORTZIRIAK**

# Ikasturte berriari ekin diote herriko eskolan

Irailean goizez bakarrik arituko dira

ELIXABET ETA GARBIÑE

Irailean 8an hasi da ikasturte berria herriko eskola publikoan. Irakasle berri bat etorriko da eta gainerakoak, joan den ikasturteko berak izanen dira. Iraila guzian klaseak eguerdiko 1ak arte eta gainontzean, 9etatik 1etara eta 2,30etatik 4etara Lehen Hezkuntzakoak eta 5ak arte Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzakoentzat. Aurten berrikuntza batzuk egin dira eskolatan. Tabike berri bat egin dute eta gelak pintatu dituzte. Orain, kalfakzio sistema berria jartzeko lanak egin beharrik dira.

**Giro eta eguraldi ederra bestetan**

Eguraldi eta giro zoragarriarekin igaro ziren herriko bestak.



Gazte Asanbladak antolatutako kontzertura jende aunitz hurbildu zen eta soinuaren kalitatea, musikariaren arabera izan zen, bikaina. Aipagarria da, eraberean, herri bazkarian bildu zen gazte kopurua eta bertako giroa.

**Intsumiso atxilotuak**

Imanol eta Dabid Iturria anaiak irailaren lehen astehena, atxilotu zituen guardia zibikak intsumisoak direlako. Biak Etxalarko kuarteletik Iruñera eraman zituzten. Dabid egun be-

**Arantzako bikotea bosgarren Nafarroako trikitalari txapelketan**

Olatz Irigoien eta Leire Amoros herriko gazteak Nafarroako trikitalari txapelketaren finalean bortzgarren gelditu ziren. Arantzan izandako kanporaketan lortu zuten Lakuntzan burututako finalerako txartela eta beraien maila erakutsi zuten han ere.

Argazkia: Joxe Lacalle

rean, arratsaldean, libre gelditu zen, bere egoera epailearen aitzinean berretsi ondotik. Imanol, berriz, gaua Iruñean eman ondotik, astearte eguerdian pasatu zen epailearen aitzinetik, eta epaiaren esperoan libre gelditu zen.

**Herriei eman beharreko transferentzia arruntak erabaki ditu Nafarroako Gobernuak**

Irailean lehen onartutako Foru Dekretuan Nafarroako herriek Nafarroako Gobernutik aurten jasoko dituzten transferentzia arruntaren kopurua onartu zen.

Bortziritako herriei dagokienez, Arantzak 15.714.859 pezeta jasoko ditu; Berak 68.372.535 pezeta; Etxalarrek 16.228.156 pezeta; Igantzik 11.562.161 pezeta eta Lesakak, azkenik, 56.481.535 pezeta. Dirutza hauek, herri bakoitzeko biztanle kopuruaren arabera banatzen dira.

**Arantzako Gazte Asanbladaren zozketa**

Aterpen sei afari egiteko zozketan 1889 zenbakiari egokitu zaio saria. Irailean 16rako agertzen ez bada 3768 da ordeko zenbakia.

**SAROB**  
okindegia   
SANDERS Pentsuak  
Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA

GRUPO  ZURICH  
ASEGURO OROKORRAK  
Itzea, 4 - BERA - © 63 07 63

**OKANE**  
HARATEGIA • URDAITEGIA  
Kanttonberri 4, Tfnoa: 63 00 18 • BERA



**MARTIKO**  
Gure baserrietako produktuak  
© (948) 63 07 00 • Fax 63 12 13  
Zalain Poligonoa, BERA



**LABE ZAR**  
© 631076 • BERA



**LANCHAS**  
• Parketak - Tarimak  
• Kutxillatzea eta bernizatzeak  
• Estaldura Orokorrak  
Bera © 630735  
Irun © (943) 622305



**MALERREKA**

# 'Itturburu' izeneko ostatu berria zabaldu dute Sunbillan

Abuztuaren 8an ireki zen apezaren bedeinkazioarekin

JOSUNE ETA ISABEL

Abuztuaren 8an zabaldu zen ofizialki Sunbillan *Itturburu* izeneko ostatua. Arratsaldeko 8,30etan hasi zen ekitaldia eta jende aunitz hurbildu zen bertara. Apezak bedeinkazioa eman zion ostatu berriari eta ondotik luntxa banatu zen, bertaratu zen jendearen artean. Honekin lau ostatu dau de Sunbillan.

**Sunbillako igeriketa ikastaroaren bukaera**

Abuztuaren 30ean akitu zen Sunbillako pizinan burutu den igeriketa ikastaroa. Haur eta heldu aunitzek eman du aurten izena igerian hobeki ikasteko. Despedida ere eman zioten ikastaroari, abuztuaren 29an Bustitz ostatuan egindako afariarekin.



Itturburu ostatuaren inaugurazioan hainbat jende bildu zen Sunbillan

**Zenbait herrietako ur-hornidura lanetarako laguntza**

Nafarroako Gobernuak 132,17 milioi pezetako dirulaguntza eman du Ituren, Elgorriaga, Doneztebe eta Sunbillako ur-hornidura lanen bigarren fasea

burutzeko. Lehen fasea, 1993-95 Hirurteko Planaren barnean burutu zen. Lanen aurrekontu osoa 170 milioikoa da

**Bertso eskola dohainik**

Bertsotan ikasteko aukera ederra izanen du-

te 8 eta 12 urte arteko neska-mutikoei, Mankomunitateak antolatuta nahi duen bertso eskolan. Izen ematea irailean gauzatu beharko da urriaren 10a baino lehen, Euskara Zerbitzuko 451746 telefonora (Esther) deituz.

**Euskaltzaleen topaketak Doneztebeko Juansenean**

Urriaren 7an hasi eta azaroaren 6a bitartean, Euskaltzaleen Topaketak burutuko dira Juansenean, astearte eta ortzegunero, arratseko 7,30etatik 9,30etara.

Topaketa hauek bi helburu dituzte: bate-tik, hainbat ataletan euskararen erabilera areagotzeko eta normaltzeko gaur egun burutzen ari diren zenbait ekimen ezaguturazi, karrikaratu eta aipatutako gai hauen inguruan ahalik eta partaidetza handieneko eztabaida eragitea; eta bertzaldetik, informazio teorikoa eta prestakuntza teknikoa ematearekin batera euskalgintzan lanean diharduen jendea elkar ezagutzeko aukera izatea. Baztan, Bortziriak eta Malerreka-ko udalek antolatutako topaketa hauetan normahik parte har dezake eta matrikula 4.000 pezetakoa da.

**IBARROLA**  
**HAURRENDAKO ARROPA**  
**MERTZERIA**  
 Parrokia 6 • Tfnoa: 45 04 63 • DONEZTEBE

**GAZTANDEGIA**  
  
**LIZUN** Etxeko Ardi Gazta  
 Petxenekoborda • Tfnoa: 45 08 62 • SUNBILLA

**ALDABE TAXIA**  
**DONEZTEBE**  
 © 450687

**ARIN ASEGURUAK**  
  
 Parrokia 21  
 Tel.-Fax: 450266  
**DONEZTEBE**

- Kotxeak
- Kamioiak
- Etxebizitzak
- Enpresak
- Istripuak
- Bizitza
- Aurrezkia
- Bertzeak

**APARAN, S. A.**  
**BRIKOLAIA eta ZURAK**  
  
 • Melamina taulak  
 • Taula hidrofugoak (uretik babesteko)  
 • Txapaz estalitako taulak  
 • Entzimerak  
 • Ate arruntak eta sukalde mogleendakoak  
 • Pintura eta bernizak  
 • Bainurako mogleak eta osagarriak  
 • KIT mogleak, esku-erremintak, etab...

Tel.: 450 133  
 451 541  
 Faxes: 450 334  
**DONEZTEBE**



**MALERREKA**


# Urbaser-Dragados enpresari eman diote anbulantzien lana

Orain arte 'Baztan-Bidasoa' anbulantziek egiten zuten zerbitzua

TXEMA ALDABE

Urbaser-Dragados enpresa elkarteak eskainiko du hemendik aitzinera zonaldeko anbulantzia zerbitzua, Osasunbideak enpresa honekin kontratua gauzatu baitu. Orain arte, hainbat urtetan, Nafarroako Anbulantzia elkartearen (Asena) barenan zegoen Baztan-Bidasoa anbulantzia enpresak egiten zuen lan hau.

Halere, zenbait gorabehera izan dira Asena eta Nafarroako Gobernuaren artean. Bi erakundeen arteko kontratua ekainaren 28an aki-



tzen bazen ere, Iruñetik bertze hilabete batez se-

gitzeko eskatu baitzioten Asenari, enpresa be-

## Bakarkako txapel berria eskuratu du Koteto Ezkurra erremontelariak

Bingo Londres txapelketa hirugarren aldiz eskuratu du Koteto Ezkurra erremontelari doneztebarrak. Abuztuaren 31n jokaturako finalean, iaz bezala, Jon Eizagirre izan zuen aurrez aurre. Egia erran, partidua- ren hasieran lan ugari eman zion Kotetori, baina hau gibeletik errestatzen hasi zenean aldatu zen partidua- ren itxura. Azkeneko emaitza, 35-26 izan zen.

ria behar bezala pres- tatu bitartean.

## Emakumeendako ikastaroak Ezpelura elkartearen eskutik

Emakumeendako ikastaroak antolatu nahi ditu Ezpelura emakume elkarteak. Hiru motatako ikastaroak izanen dira: bata, moble zaharrak eta zaharberritzea; biga, jostungintza ikastaroa eta hirugarrena, artisautza. Ikastaro horietan aritu nahi duenak 451746 telefonoan ize- na eman behar du edo Malerrekako Mankomunitatera joan, iraila- ren 15a baino lehen. Gero zehaztuko dira or- dutegiak eta non eginen diren ikastaro hauek.

## Euskara merkataritzara kanpaina

Euskara Merkataritzara kanpaina segida izanen du aurten ere. Oraingo bisitetan, estab- lezimendu bakoitzean euskararen erabilpene- an izan diren aitzin- pausuak jaso, Euskara Batzordearen eskaintza berriak (itzulpenak, errotuloak euskaratze- ko dirulaguntzak, eus- kara klaseak...) zabal- du eta egoten ahal di- ren beharrak eta arazo- ak nola konpondu az- tertuko da.

Bide batez, Euskara Zerbitzuak merkata- riendako ikastaroak an- tolatu ditu aurten ere.

## Bi hildako istripuetan

Bat bertzearen on- dotik, bi gertakari latz gertatu ziren abuztua- ren 23 eta 24an. Lehen- bizikoan, Doneztebako Itxaso Larretxea Eli- zondo, 3 urteko neska- tx, Urrotzen traktore baten gurpilak harra- patu zuen. Hasieran, Doneztebera ekarri on- doren, ez zuen ematen

hainbertzekoa izanen zenik, baina gibela le- hertua zuen eta Iruñera iritsi eta abudo hil zen. Itxasoren ama Urrozko Martuzenekoa da eta han zegoen bera, hau gertatu zenean.

Bigarren ezbeharra biharamonean gertatu zen. Miguel Meoki Ariztia, hilik aurkitu zu-

ten eguerdi aldera be- re etxean, elektrokuta- tuta. Miguelek 47 urte zituen eta Legasako Aceralian lan egiten zuen. Ezkondua eta lau seme-alaben aita zen.

Itxaso eta Miguelen hileta-elizkizunak irai- laren lehen astelehene- an egin ziren. Miguel Lekarotzera, bere jaioterrira eramanean zuten lur- peratzera.



Itxaso Larretxea Urrotzen hil zen

## FUNERARIA ZERBITZUAK DONEZTEBEN



**MALDAERREKA, S.L.**

24 ordutako zerbitzua  
Iruñea-Donostia-Irongo ospitaletatik  
edozein herritara trasladoak  
Tfnoa: 63 74 04 • LESAKA  
Tfnoa: 45 04 75 • DONEZTEBE



## SANTAMARIA Jatetxea

Espezialitatea euskal sukaldaritzan  
Eguneko menua eta karta  
Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE



Parrokia 11  
Tfnoa: 45 01 12  
DONEZTEBE

## ETXANDI TXOKO jatetxea

Bazkari, afari  
eta gosariak

ITUREN  
Tfnoa: 45 04 91



**MALEERREKA**

# Irailaren 20an ospatuko da Iturenen aurtengo Joaldunen Eguna

Lesakarrak nagusitu ziren Aurtizko lehen pilota txapelketan

IBAN ISASI

Irailaren 20an ospatuko da aurtengo Joaldunen Eguna. Goizeko 10etan hasiko dira eguneko ekitaldiak. Herriko joaldunak Ameztiako baserrietara joanen dira. Beraiekin batera, herriko trikitilariak. Eguerdian herriratuko dira. 1,30etarako Senosiain eta Jaunaren arteko aizkora apostua iragarrita dago. Ondotik, Amuriza eta Agirre bertsolariak arituko dira. Bazkaria 3ak aldera hasiko da eta honen inguruan, aipatu behar txartelak salgai egonen dira betiko tokietan. Arratsalde eta gauaz, besta akitzeko, Etxabe anaiak trikitilari taldea arituko da beraien doinuak zabalduz.



Aurtizko pilota txapelketaren lehen edizioan parte hartu duten pilotariak

Argazkia: ZALDUA

### Lesakarrak nagusi Aurtizko pilota txapelketan

Abuztuaren 30ean jokatu zen Aurtizko I. Pilota txapelketaren fi-

nala eta Makatzene eta Matxitene lesakarrak izan ziren garaile, finalen 30-18 irabazi baitzieten Txarutako Juanjo Atxa eta Patxi Ordoki-

ri. Hirugarrenak Zipri eta Patxi Mujika lesakarrak eta laugarrenak Zubietako Patziku Loiarre eta Urrozko Pepe Larraioz izan ziren.

Txapelketa hau Aurtizko ostatuaren iniziatiba izan da. Aurten zortzi bikotera mugatu nahi izan dute, lehenbiziko aldia delako. Lauko bi taldeetan banaturik abuztuaren 2an hasi eta larunbatero hiru partidu jokatu, talde bakoitzeko lehenbiziko bi bikoteak sailkatu ziren.

Txapelketa akitzeko afari eder bat egin zuten Aurtizko Ostatuan eta bertan egin zen sarien banaketa. Parte hartu zuten hamasei pilotariendako trofeoak izan ziren.

Heldu den urteari begira antolatzaileek irailen hasiera erabaki dute eta San Martinetan akitu, Aurtizko bestetan, alegia. Dena den, honen berri garaiz emanen dute.

# Langarrak antolatutako Euskararen Eguna Saldiasen burutuko da irailaren 20an

Bertso afarirako txartelak salgai daude dagoeneko

TXEMA ALDABE

Aurtengoan Saldiasen hartuko dio txanda Donamariari eta bertan ospatuko da Langarra euskara taldearen eguna, aurten Euskararen Eguna izenarekin. Ekitaldi guztiak irailaren 20an, larunbatean, arratsaldean egingen dira Saldiasen herriak eta Langarrak antolatutako.

Egun horretan, arratsaldeko 4etan hasiko dira ekitaldiak, hau-

rrendako eginen diren jokoekin. 6etan antzerki emanaldia izanen da Trokolo taldearen eskutik, *Liburulariak* izeneko lanarekin. 7ak aldera, berriz, Berako Larraitz txarangak animatuko ditu bazterrek eta 9etan bertso afaria izanen da Xebastian Lizaso eta Angel M<sup>a</sup> Peñagarikanorekin. Tartean txarangak ere joko du. Eta akitzeko, letatik antzina Oiartzungo Sarats trikitilari taldea-

rekin gaupasa. Bertso afarirako txartelak Donamaria, Gaztelu, Urrotz, Beintza, Saldias, Elgorriaga, Zubieta eta Narbarteko herriko ostatueta, Doneztebeko Maylin eta jubilatuen ostatueta, Sunbillako M<sup>a</sup> Jesus harategian, Legasako Kuku elkarrean, Ezkurrako Barrankan eta Eratsungo Eskudero tabernan salgai egonen dira irailaren 14a (igandea) bitarte. Prezioa 3.000 pezetakoa

izanen da (hamalau urtetik behitikoendako, 2.000 pta). Menua, berriz, entremes hotzak,

zopa beroa, baserriko oilasko erreka, arkumea, flana eta helatua, kafea, kopa eta puroa.

### Euskara ikasteko matrikula idekia

Malerekekako Euskaltegiak (IKA) 1997-98 ikasturtean matrikulatzeko edo izena emateko epea ideki du dagoeneko. Maila guztiak ikasteko aukera ematen du, nola euskara ikasi eta hobetu nahi dutenendako, hala idazten eta irakur-

tzen hasi nahi dutenendako. Euskara tituloa ateratzeko aukera ere izanen da, astez nahiz larunbatez.

Honen berri eta ikastaroen prezioak jakin nahi duenak, aski du 451555 telefonora deitzea edo Doneztebeko euskaltegira joatea.



**MALERREKA**

# Eratsungo Santa Leokadia festak umore ederrean igaro berri dira


Urteko hirugarren ezkontza, bestalde, larunbatean ospatuko da

L. OTXANDORENA

Ostiralean hasi eta astelehena bitarte burutu dira herriko festak, Santa Leokadiaren ohorez. Ia egunero pilota partiduak ikusgai izan ziren. Larunbat goizean, txistulariek kalejira egin zuten. Arratsaldean, Mikel Mindegia eta Donato Larretxearen arteko aizkol aposua burutu zen.

Igandean, berriz, Patxi Mariezkurrena, Eratsungo alkate zenaren aldeko meza izan zen. Arratsaldean, Retegi VI eta Mitxeo, Bengoetxea eta Baleztenaren kontra aritu ziren pilotan.

Astelehenean, Santa Leokadia eguna zela gogoratuz meza ospatu zen eta goizetik kalejira izan zen Aurtizko txistulariekin. Arratsaldean, profesionalen arteko pilota partiduak.



**Aurten ere, programatik kanpo hainbat ekitaldi burutu dira Eratsungo festetan. Argazkian, orain bost urte ezkonduak ezkongabeen kontra jokatutako sokatira desafioa ageri da.**

Musika, Modesto akordeolaria eta ALMEN taldearen eskutik etorri da.

### Urteko 3. ezkontza larunbatean

Aurten bi bikote ezkondu dira herrian. Ekainaren 21ean Patxi

eta M<sup>a</sup> Jose Elizalde eta uztailaren 19an Juani eta Patxi Mariezkurrena. Larunbat honetan, irailak 13, berriz, M<sup>a</sup> Jose eta Sebastian Retegiren txanda izanen da. Dena den, hiru bikoteak herriatik kanpo biziko dira.

### Dolareako Patxi Mariezkurrena, Ekuadorren hila

Dolarea baserriko Patxi Mariezkurrena Elizalde, istripuz hil zen Ekuadorren abuztuaren 3an, 43 urte zituela. Han bertan eman zioten lurrera. Goian Bego.

### Ezkurrako ur eta saneamendu sare berriak inauguratu zituzten festetan

Rafael Gurrea, Nafarroako Gobernuako lehendakariordea eta Leku Administrazio-ko kontseilaria izan zen Ezkurrako ur eta saneamendu sare berriaren eta zola berriaren inaugurazioan, herriko festen barnean.

Lan hauek egiteko 95,7 milioi pezeta gastatu dira, horietatik 65,7 Nafarroako Gobernuak jarriak. Lanak bi alditan egin dira. Lehenean, errepidetik gora dagoen herri zatia egin zen, 1995ko martxo eta iraila bitartean, 73 milioi gastatuz (50,7 Nafarroako Gobernuak jarriak). Bigarrenean, herriaren behaldekoko sarea moldatu zen gehien bat, joan den urtean eta aurten. Bigarren zati honetan 22 milioi erabili ziren, horietatik 15 Nafarroako Gobernuak jarriak.

**ARANO**

# San Rokeko erromeria ospatu zen

Hainbat txistulari bildu ziren



Ohiturari segituz, aurten ere San Roke eguneko erromeria ospatu da Aranon. Goiz goizetik hasi ziren txistulariak lanean eta ka-

lejiran joan ziren herri-  
tik San Roke ermitaraino. Bertan, meza aditu eta txistulariek Aurrekua jo zuten. Pilota partiduak ikusi eta gero,

poteo herrikoian parte hartu zuten txistulariek. Bazkariak berriz, Herriko Tabernan eta Gure Ametsa jatetxetan eman ziren. Pesta honetan ha-

martxistularik parte hartu zuten: Euri Albizu (Segura), Garbiñe Tijero, Antonio Insausti eta Apezetxea (Hernani), Marcos Zapirain (Le-

keitio), Jon eta Angel Karrera (Sestao), Jose Gabriel Huarte-Mendi-  
koa (Iruña), Hector Garde (Melida) eta Xabier Narbarte (Arano).



**GOIZUETA**

# Igo egin da herriko eskola publikoko haurren kopurua

Halere, azken urteetan jaiotako haurren kopurua ikusiz, berriz ere jeitsiko da

ESTEBAN AROZENA

Iazko ikasturtean baino sei ikasle gehiago izanen ditu aurtengoan Andres Nabarte 'Xalto' Eskola Publikoak, beraz, azken urte hauetako matrikulazioen beherako joera haustea lortu da. Baina 1995ean eta 96an herrian jaiotako haurren kopurua kontutan hartzen badugu, ez dirudi honelako berrikerik eman ahal izanen dugunik hurrengo kurtsoren hasieran.

1996-97an 27 ikasle zituen eskolaurreko zikloak, eta aurten 29; Lehen Hezkuntzak, 52 iaz eta 54 aurten; eta DBHK 18 eta 20. Irakasleei dagokienez esan, hamar maisumaistrek osatuko dutela klaustra, hauetatik sei funtzionarioak eta



Irailaren 3an banatu ziren Babes Ofizialeko etxebizitzaren giltzak

lau interinoak.

## Babes Ofizialeko etxebizitzaren giltzak

Errekaundi pasealekuan kokatuak dauden Babes Ofizialeko 12 etxebizitzaren jabeek le-

hengo astean eskuratu zituzten giltzak. Udalak gestionatu eta Jose Cerainek eraiki dituen pisu hauek bukatuta zeuden orain dela bizi-pahiru hilabete, baina Iberdrolarekin sortuta-

ko arazo batzuegatik atzeratu da giltza-emate hau.

## Juantxo eta Joxeanton txapeldun

Juantxo eta Joxeanton

ton Apezteak irabazi zuten abuztuaren 31n jokatu zen Antiguako pilota txapelketaren finala. Donostiako Torneo ospetsu honetan bi Apezteak duten palmaresa ikaragarria da. Horrela, azken bost urte hauetan finalean izan dira, hirutan txapela eskuratuz. Honetaz gain, Joxeantonek beste bi txapel lortu ditu Iñaki Lujanbiorekin bikotea osatuz.

## Tropikaña-2

Iskibi kanpiñak «Tropikaña» jaiarribigarren edizioa antolatu du ostiral honetarako, irailak 12. Hainbesteko arrakastarekin ekainean ospatu zenaren baldintza berdinak izanen ditu oraingo musika festa honek ere, beraz, jende dexente espero da.

**ARESO**

# Herriko artzain eta txakurrak bikain Uharten

Jaunartzeak, Kultur Egunak...

JUANA M<sup>a</sup> SAIZAR

Urte batzuetatik honera, garai honetan ohi den bezala, Uhartera Arakilen ospatutako Artzainen Egunean aresoarrak izan ziren protagonistak. Lau puntu besterik ez zitzaizkion falta izan Antonio Alustizari, iaz bezalaxe

txapela lortzeko *Jai* bere txakurrarekin batera. Antoniok zailtasunak izan zituen bigarren proban, antolatzaileentxakur bat artaldearengana hurbildu zenean eta gelditu beharra tokatu baitzitaion. 204 puntu lortu zituen eta bere anaiak, Kintin Alustizak 174 puntu lortu zitu-

en *Txumi* txakurrarekin, hirugarren postua lortuz. Arraza garbierneko euskal artzain txakurrari emandako saria ere *Jai* txakurrak eskuratu zuen. Morfologia lehiaketan, Aresoko Miguel Mari Belaunzarane lehen-



## Aresoarrak bigarren Erreterian

Erretereriako Madalenetako Torneoan azpitxapeldun izan ziren Xabier Gereño eta Mikel Olazabal aresoarrak, finalean goizuetarren kontra galdu ondotik.

biziko saria lortu zuen bitur gorriko latxa ardi-lote onenari.

Bildotsekin, berriz, bigarren saria lortu zuen Miguel Marik.



**Maxurrenea itxia**

Maxurrenea ikasle-egoitza itxiko da eta bertan bizi diren 3 mojak joanen dira. Bi omen dira arrazoi nagusiak etxea itxeko: alde batetik ikasturte honetarako ez zegoen ikasleen eskaerarik eta bestetik, Bigarren Hezkuntzako Institutuan irakasle ziren bi mojak ezin dute lanean jarraitu euskara ez dakitelako eta ikasle gehienak D ereduari matrikulatu direlako. Nafarroako Gobernuarena den etxea aipatutako institutuaren zuzendaritzapean geldituko da oraingoz eta aurrerantzean ikastarotarako edota gazteen aterpe moduan erabiltzeko asmoa dute. Fca. Telletxea, Ana M<sup>a</sup> Garcia eta M<sup>a</sup> Pilar Arbilla Ahizpak 21, 19 eta 9 urtez bizi izan dira hemen.



San Tiburtzio eguneko txaloen oihartzuna entzuten da oraindik

# Asko nahasten ari da Udaletxeko giroa

Presio gogorak «goitik», HBri alkatetza kentzeko

**JOSEBA AZPIROZ**

Pestak joan ziren, ongi joan gainera, alajaina. San Tiburtzio eguneko txaloen oihartzuna oraindik entzuten dira. Ura era badoa, eta udazkenak giro oso na-

hasia dakar herrira. UILko 3 zinegotziek alde egin dute udaletik, baina HB eta EAko 8 zinegotziek lanean segitzen dute, oraingoz. Eta oraingoz, diogu, izan ere HB alkatetza-rik botatzeko, «goitik»

presio gogorak dituztela entzuten baita. Ekaitz giroa areagotuz, ikurriña bi aldiz lapurtu dute Udaletxeko balkoitik gaez, eta alkatea epaitegira deitu dute ikurriña udaletxeko balkoitik ez kentzeagatik.

**Futbol zelaia**

Nafarroako Gobernuak 17 milioiko dirulaguntza onartu du futbol zelaia egiteko eta 9 milioi igerilekuak legezatzeko.



**Martin eta Juliaren Urrezko Ezteiak**

Urrezko Ezteiak bete zituzten irailaren 3an Martin Sagastibeltza Zabaleta eta Julia Alduntzin Zabaletak. Leitza ezkondu eta bertan bizi izan den bikote honek, abuztuaren 30ean ospatu zuen gertaera senitartekoekin Maxurrenean egin zuten meza eta ondorengo bazkariarekin. Zorionak eta urte askoz.



**flash**

- ❖ **Zaharren Etxea**  
Udal komisiok udan zehar segimendua egin ondoren, zahar etxearen proiektua eta azterketa prestatu dute Nafarroako Gobernuan aurkezteko, hau baita eskualdeko zein herritan eginen den erabaki behar duena. Proiektuaren arabera, 72 laguntzat lekua izanen duen egoitza hau eraikitzeak 300 milioikoa da.
- ❖ **Albaitaria**  
Ostegunero Irurtzundik Txoko tabernara etortzen zen albaitaria, hemendik aurrera ostiralero, goizeko 12etan Udaletxera etorriko da.
- ❖ **Transferentzia arruntak**  
Nafarroako Gobernutik transferentzia arruntak bidez aurtan 67.358.772 pezetak jasoko ditu Leitza udalak; 2.689.827 pezetak Aranokokoak; 6.147.025 Aresokoak eta 21.228.813 Goizuetakoak.
- ❖ **Su-hiltzaileen parkea...**  
handitzeko 5 milioi emanen ditu Nafarroako Gobernuak, 600.000 pta lau boluntarioek kamioia ibiltzeko karneta ateratzeko eta milioi terdi aseguruak ordaintzeko eta anbulantziakoan buscaren mantenimendua kuota ordaintzeko.

Betiko platerrez gain, bereziak ere eskaintzen dizkizugu. Eta ezkontzea pentatu baduzu, harrituko zaitugu!

**Basa Kabi**

Tel. 510125 • Faxa: 610965  
LEITZAko gaina

**GAZTELU ITURGINTZA**

**KALEFAKZIOA**

Elgoien 32  
Tfnoa: 51 00 86 • LEITZA

**BEINIZAKO OSTATUA**

Afari berriak (enkarguz)  
Musika... atsegina  
Lurreko su goxoa!

Tfnoa: 45 00 14  
BEINIZAKO OSTATUA



**BAZTAN**

# Lau baztandar epaitu zituzten irailaren 4an Iruñean

Guardiazibil batek jarritako salaketari erantzun behar zioten

JOSEBA IGARABIDE

Irailaren 4an bi epaiketa burutu ziren Iruñean, lau baztandarraren kontra.

Lehenbizikoan, 1996ko Baztandarren Biltzarra egunean gertatutakoa epaitzen zen. Egun horretan guardiazibil batek tiroa bota zuen, amnistiaren aldeko kalejira bere ondotik pasatu zenean. Salatzailea tiro bota zuen guardiazibila zen.

Bigarren salaketa, bertze guardiazibil batek ezarri zion Sotero Etxandiri, honek torturazalea zela erran zioela eta. Sotero, Eneko, Kali eta Agus epaitu zituzten, baina idatzi baten adierazi zuten, «abertzale guzien kontrako epaiketa da». Jende andana joan zen epaiketara.

## Muga begiratzea

Baztango udalak Iparraldeko (Urepel, Alduide, Sara, Senpere, Ainhoa, Itxaso, Ezpeleta, Bidarra, Banka eta Baigorri) udal ordezkariekin, mugarriak begi-



## Felix Irigoien eta Rubi txapeldun Uharten

Amaiurko Felix Irigoien eta Rubi bere zakurra nagusitu ziren Uhart-Arakileko XXX. Artzain-zakur txapelketan. Hirugarren aldía da Felixek sari hau eskuratzen duela. Ekitaldi berean, Patxi Etxeberria amaiurtarrari omenaldia eskaini zion Aralar Mendi elkarteak (15 aldiz irabazi du txapela Patxik, Labri, Pintxe eta Lagun zakurrekin). Argazkian, Rubi ageri da artaldearekin lanean.

Argazkia: Diario de Noticias

ratzen aritu dira. Protokolo gisa egiten da urtero, baina ez da arazorik izaten.

## Isuna Belateko enpresari

Belateko tunela egiten aritu den enpresak milioi bateko multa jasotzen du, iturri bat urik gabe uzteagatik.

## Enpresaren gestioari buruzko ikastaroa

Cederna-Garalur erakundeak antolatuta enpresaren gestioari buruzko ikastaroa eskainiko zaie Baztan, Urdazubi, Zugarramurdi eta Malerrekako autonomo eta enpresari ttikiei. Ikastaroaren iraupena 20 ordukoa

izanen da eta izen emateko epea irailaren 16an akituko da. Horretarako Cederna-Garalur erakundeko bulegoetara deitu behar da, 580561 telefonoa Elizondon (Idoia) eta 451654 Donezteben (Sagrario).

## flash

### Ikastetxeen garbiketa

1997-98 ikasturtean M<sup>a</sup> Josefa Goñi arduratuko da Elizondoko San Francisco Javier ikastetxearen garbiketaz. Baztan ikastolaren garbiketaz, berriz, M<sup>a</sup> Carmen Iturriria arduratuko da.

### Amaiurko

batzarre aretoa moldatzeko 110.000 pezeta dirulaguntza eman du Balleko Etxeak. Gela hau, jostaleku bezala ere erabiltzen da.

### Gripearen

aurkako txerto kanpaina irailaren 15ean hasiko da Osasun Zentroan.

### Azpilkuetako

Apaioa auzoko karrika eta etxeetako bazterrak moldatzen ari dira. Lana, Azpiroz eta Saralegi enpresari adjudikatu zion Balleko Etxeak.

### Lekarozko

bestetan ikusmina eta ustekabe bat baino gehiago sortu du sokamuturrak. Behi batek Arraska aldera ihes egin zuen, bertze batek soka hautsi eta gizaseme bat zauritu... Mugitu xamarrak, doike!

**BAZTANGO AEK**

**EUSKARA IKASTAROAK**

97 - 98 IKASTURTEA

Informazioa eta Matrikula:

ELIZONDOKO IKASTOLA

Tfnoc: 452471

EPEA: Irailaren 26 arte





**BAZTAN**

# Elbeteko Gurutze Sainduaren bestak irailaren 12tik 15era

Beti bezala, Karrikatxarreko bazkariarekin akituko dira

**Ortzilerie, irailak 12**  
**Bezpera**

**6etan** suziria. **8etan** Baztan-Zopak. **10etatik 12etara** dantzaldia KRISTIAN eta taldearekin. **12etan** txopo goratzea. Ondotik urteroko "xaltxa". **3akarte** dantzaldia KRISTIAN eta taldearekin,

**Launbete, irailak 13**

**9etan** argi soinuak. **2etan** gazteen bazkaria Herriko Ostatuan. **5,30etan** antzerkia Baztango Udala eta Nafarroako Gobernua-ren laguntzarekin. **6etan** txokolatada. Bitartean, GORRAMENDI 10 taldearen saioa. **7etan** bapateko mus txapelketa. **8etatik 10etara** eta **12etatik 5etara** dantzaldia GAUBELAekin. **10etan** mutil dantzak.

**Igendia, irailak 14**

**Gurutze Sainduaren Egune**

**9etan** argi soinua. **12etan** Meza Nagusia Gurutze Sainduaren omenez. Ondotik mutil dantzak eta hameketakoa ostatuan. **1etan** sekulako aizkora apostua eta Joxe Bikondoa mozketatik bertikalean. **6etan** GORRAMENDI 10 taldearen saioa. **8etatik 10etara** eta **12etatik 3etara** GOIURI taldea. **10etan** mutil dantzak.

**Astlehena, irailak 15**

**Herritarren Egune**

**9etan** argi soinua. **2etan** herri bazkaria Karrikatxarren. Ondotik dantzaldia JOSETXOekin.



Joan den urteko herri bazkariaren irudiak. Goitian, irudi orokorra. Beheitan, ezkerrean gazteak eta eskuinean, sukaldariak.

Argazkiak: Rakel GOÑIK utziak

**flash**

**Zigako frontoian**

zola eta paretak mol-datzeke 1.300.000 pezetako dirulaguntza eman du Nafarroako Kirol eta Gaztediaren Institutuak. Aurrekontu osoa 3.979.406 pezetakoa da.

**Transferentzia arruntak**

Balleko Etxeak aurtan 176.075 pezeta jasoko ditu Nafarroako Gobernutik, transferentzia arruntei dagokienez. Urdazubiko Herriko Etxeak 8.547.931 pezeta eta Zugarramurdikoak 6.893.199 pezeta jasoko dituzte konzeptu berean.

**BODEGAS ERRASTI, S.L.**

Bodegas Gailur

ARABAR ERRIOXAKO ARDOAK  
GETARIAKO TXAKOLINA

Zonarako banatzailea  
**TXOPORRO Ardoak**

M. Azpilkueta, 6 • ELIZONDO

☎ 58 02 78

**OSKORRI** *liburudenda*

- Liburuak-prentsa-mapak-gidak
- Argazkilaritza materiala
- Papertegia-inprenta

☎ 592245 • Petreina • **ORNOZ-MUGAIRI**



**MENDIALDE Jatetxea**



Etxeko gasnak saltzen ditugu  
Dantxarinearako bidean, 66. km.

AMAIUR • Tfnoa: 45 30 60

**JATETXEA**  
Tfnoa: 580101  
Santiago 1  
ELIZONDO

**Galarza**

**MENDI OSTATUA**

Santiago 25 • ☎ 580313  
ELIZONDO



**ZUGARRAMURDI**

# Elizako bederatzi irudiak zaharberritu dituzte uda honetan

Abuztuaren 31n, bertzalde, Errefetak ospatu ziren

MARGARI ETA KORO

Uda huntan elizaren barneko aldeko itxura berria ikusteko aukera izan dugu. Duela bi urte goitik beheiti pintatu bazen, oraingo lana dauden 9 imajinak zaharberritzea izan da. Imajina hauek haritz egurrez eginak dira, duela ehun urte paratuak (aitzinetik zeuden imajinak paretan pintatuak ziren) eta hainbertze urteren buruan beren kolorea eta dizidira galdua zuten. Orain, Diozesiko erreatauradore batzuk hautsa kendu ondotik, zikinkeria harrotu eta garbitu egin dituzte, azkenik barniza emanez. Lan hau egiterakoan erretaulako imajinen gaineko aldean bertze pintura batzuk agertu dira (egun dagoen erretaula paratu aitzinetik zeudenak) eta



Argazkian duela berrogei bat urteko soka-dantza ageri da. Garai hartan bestetako zikiro-jatea egiteko ohitura zen eta, bistan denez, gizonezkoak bakarrik gaten ziren. Orai, bestetako zikiroan gehienak kanpotarrak direnez, ohitura hau galdu da, baina errefetakoa mantentzen da.

haiek ere garbitu eta mantendu dira.

Bertzalde, eta meza ordutik kanpo eliza barnea ezin ikusi izanari erremedio bat emanez,

kanpoko atearen parean aluminio eta altzairuzko pertsiana zilodun haundi bat jarri da; modu huntan bi atek zabalduz pertsianaren

bertze aldetik ederki ageri da eliza.

**Errefetak**

Abuztuaren 31n Errefeta ospatu ginen,

beti bezala egun huntako ekintza garrantzitsuena zikiro-jatea izan da. Aurten 140 lagun bildu dira, giroa pil-pilean egon zen leze barnean, gero bedenik kilometro bateko sokadantza egin zen karrketan eta azkenik plazan *Larrain dantza* dantzatu ondoren baikoitzak besta bere modura segitu zuen, trikitixa eta *Drindots* taldearekin.

**Dantxarineako farmazia**

Uda huntatik aitzina Dantxarineako Farmaziak bere ordutegia aldatu du. Kontuan har dezazuen, hauxe izanen da:

Astelehenetik ortziralera, goizeko 10etatik 2,30etara eta arratsaldeko 3,30etatik 6etara.

Larunbatetan goizez, 10etatik 2,30etara.




Martin Lizasoain Adansa

Zaldubia Poligonoa • © 580562  
IRURITA - BAZTAN

**Sukalde eta  
Bainu Mobleak**

*Egoki-ren banatzaile  
baimendua*



**Maderas  
GOMEN**


- Era guzietako atek, janbak eta regruesoak
- Egur idorrak: tropikalak, haritzak, gaztainak, pinuak, izeiak...
- Tarimak eta zolak: haritza, gaztaina, pinua...
- Tableroak: melaminak, hidrofugoak, matxinbratuak...

Zaldubia Poligonoa • IRURITA • © 58 06 45

*Eskisaroi  
jatetxea*

Jaime Urrutia, Tfnoa: 580013  
**ELIZONDO**

**muñeca  
de Trapo**



**IRUN**

Luis Mariano, 35  
Tel.: (943) 62 52 55




# Herriko bestak buruilaren 13tik 17rat iraganen dira

Larunbatean kontzertua eskainiko du Niko Etxart eta Hapa Hapa taldeak

**Larunbata, buruilak 13**  
**Gaueko 10,30etan** kontzertua Niko ETXART eta HAPA HAPA taldearekin.  
**11,30etan** dantzaldia XI-TOAK taldearekin. Gau guzian KASKAROT Banda ere hor izanen da.  
**Igandea, buruilak 14**  
**10etan** Meza Nagusia Urruñarraklikarekin. Gero, itzuliz itzuli Marinelak Tanborradarekin. **10,30etan** Luzean errebotean: Senpere Baigorriren kontra. **4etan** Ahate Jokoa. **5etan** karrikan ibilaldia, Agoitzeko Ziganteak eta joldunekin. Gero, herri kirolak. Desafioa lau aizkolarirekin: Jaunarena-Loiar-te, Larretxea-Telletxearen kontra. Koxe Bikondoak trunkua xutik eta begiak tapaturik moztuko du. Inaki Perurena harri altxatzaile famatua bere semearekin arituko da. **7etan** aperitifa Zaldibiako trikitilarien musikarekin. **10etan** ALAIK taldearen kantaldia.

**11,30etan** dantzaldia IRRINTZINA taldearekin. **12etan** suzko zezena. Gau guzian Tolosako NEKAEZINAK txaranga.  
**Astelehena, buruilak 15**  
 Itzuliz itzuli gaitero eta txistulariekin. **10,30etan** Luzean errebotean Aviron Bayonnais, Ustaritzeko Kapito Harriren kontra.. **1,30etan** zikiro jatea, Olhain ikastolak antolatua oihal etxeak aterpeturik. **5,30etan** esku huska trinketea. **5,30etan** dantza saio ikusgarria ZAZPIAK BAT eta BEGIRALEAK taldeekin. **6,30etan** Fandango eta Makilaria xapelgoa. **8etan** aperitifa trikitilarekin. **10etan** kantaldia: Caroline PHILIPS eta Mixel DUCAU. **11,30etan** dantzaldia KUKUMIKU taldearekin. Karrikan animazioa NEKAEZINAK txarangarekin.  
**Astearte, buruilak 16**  
 Itzuliz itzuli gaitero eta txistulariekin. **10,30etan**



Luzean errebotean Kuriartegia kopa: Hazparne - Donibane Lohitzune. **5,30etan** Joko Garbi. **7etan** Mutxikoak. **8etan** aperitifa trikitilarekin. **10etan** karrikan itzuliz itzuli Ezpeletako txarangarekin. **11,30etan** dantzaldia JOSELUANAIK taldearekin.

Ondotik, suzko zezena. **Asteazkena, buruilak 17**  
 Itzuliz itzuli gaitero eta txistulariekin. **9etan** Sarako azienda primak, Trinketeko zabaldeian (11.000 Liberrako primak). **5etan** pilota plazan esku huska pilota partida. **6etan** esku huska trinketea. Trinketea eta

plazan bertsolariak eta zozketa. Erramun MARTI-KORENAREkin kantuak. **10etan** dantzaldia ADARZA taldearekin. **12,30etan** dantzaldia EGAN taldearekin. Gero suzko zezena. Gau guzian, karrikan ibilaldia NEKAEZINAK txarangarekin.

TIBURCIO GOIENETXE ETXEBERE

## ANZABAL

AGENZIA

- **Zurich Aseguruak**
  - Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- **Lan aholkularitza**
  - Nomina eta Aseguru Sozialak
- **Aholkularitza fiskala**
  - Errenta Deklarazioak, IVA...
- **Inmobiliaria**
  - Baserri, borda, pisu, etabarren salmenta eta alokairua
- **Gestoria**
  - Ibilgailuen transferentziak, gidatzeko karnetaren berritzea eta edozein gisako gestioak

SANTIAGO 15 - Tinoa eta Faxe: 580804 - ELIZONDO

### MENDIALDE Jatetxea

Etxeko gasnak saltzen ditugu



Dantxarinarako bidean, 66. km.

AMAIUR • Tfnoa: 45 30 60

### BAZTAN FUNERARIA

EHORZKETA ZERBITZUAK • HILKUTXEN

ERAKUSKETA ETA SALMENTA • TRASLADOAK

Jaime Urrutia 53 • ELIZONDO

Tfnoak: 580373 • (908) 776176

## Toldos BAZTAN, S.L.

TOLDOEN SALMENTA, ALOKAIKUA ETA KONPONKETA

- Kamioi eta industri-furgoneten errokulazioa (Errokulazio zerbitzua)
- Etxerako toldoak, eguzkitik babesteko (manualak edo elektrikoak)
- Toldo korrederoak
- Bolketendako sareak
- Kamioiendako klase guzietako toldoak
- Pizina estaltzeko sareak
- Trinkajetarako Slingak



Alkaiaga industrialdea, Baldrun 8

LESAKA (Zalain industrialdearen ondoan)

Tel.: 929 01 59 23



**EZKONTZAK**

**Javier Ordoki Fagoaga** eta **Amaia Etxepeteleku Mazizior**, Lesakakoak, uztailaren 26an.

**Francisco Javier Artola Arozena** eta **M<sup>a</sup> Inmaculada Concepcion Irigoien Goia**, Hondarribia eta Lesakakoa, abuztuaren 9an.

**Carlos Pacheco Retegi** eta **M<sup>a</sup> Asuncion San Julian Vicente**, Bera eta Lesakakoa, abuztuaren 30ean.

**Francisco Javier Mariezkurrena Murgia** eta **Juana Flores Vidal**, Eratsun eta Iruñekoa, uztailaren 19an.

**Francisco Javier Ariztimuño Zabaleta** eta **Miren Josune Zenoz Iarza**, Leizakoa, abuztuaren 9an.

**Oscar Javier Zanduetza Sola** eta **M<sup>a</sup> Ainhoa Sagardia Sarasa**, Iruñekoak Iturenen, abuztuaren 2an.

**Jose Francisco Robles Oskoz** eta **Ascension Lopez Diaz de Cerio**, Atarrabia eta Narbartekoa, abuztuaren 30ean.

**Jose Martin Lopez** eta **Esmeralda Sebastian Minguez**, Irun eta Berakoa, uztailaren 26an.

**Manuel Santesteban Loiarde** eta **Karmele Bendoiro Ormaetxea**, Zubietakoak, abuztuaren 23an.

**Eduardo Martinez Labari** eta **Ana Isabel Altzugarai Oiartzabal**, Iruña eta Doneztebekoa, uztailaren 5ean.

**Moises Bidarte Mariezkurrena** eta **Nathalie del Hierro Bayonés**, Elizondo eta Baionakoa, abuztuaren 2an.

**Jose M<sup>a</sup> Telletxea Etxarte** eta **Itziar Iribarren Saldias**, Igantzi eta Doneztebekoa, abuztuaren 9an.

**Juan Jose Neol Irigoien** eta **Belen Burlada Soule**, Arizkun eta Iruñekoa, abuztuaren 30ean.

**JAIOTZAK**

**Asier Etxepare Larralde**, Lesakakoa, uztailaren 30ean.

**Lidia Palacín Barroso**, Lesakakoa, abuztuaren 4an.

**Ilenia Muñoa Chillón**, Lesakakoa, abuztuaren 13an.

**Asier Sanchez Etxegia**, Lesakakoa, abuztuaren 18an.

**Narrea Etxarte Etxenike**, Lesakakoa, abuztuaren 18an.

**Jone Maria Urriza Otxoteko**, Lesakakoa, abuztuaren 26an.

**Martxel Intxausti Lasarte**, Leizakoa, uztailaren 17an.

**Beñat Urkiola Irulegi**, Leizakoa, abuztuaren 7an.

**Mikel Huizi Loiarde**, Goizuetakoa, abuztuaren 16an.

**Mikel Alzuri Makuso**, Iturengoa, abuztuaren 6an.

**Aritz Fagoaga Etulain**, Iturengoa, abuztuaren 15ean.

**Arantxa Amigorena Erasun**, Doneztebekoa, uztailaren 25ean.

**Jon Belarra Oteiza**, Doneztebekoa, abuztuaren 12an.

**Elena Zabala Ezkurra**, Doneztebekoa, abuztuaren 26an.

**Ane Berasain Goia**, Berakoa, uztailaren 25ean.

**Iker Santamaria Zamora**, Berakoa, abuztuaren 11n.

**Ander Errandonea Espelosin**, Berakoa, abuztuaren 27an.

**Oihane Mitxeo Reguera**, Almandozkoa, uztailaren 24an.

**Ivan Mortalena Mariezkurrena**, Elizondokoa, abuztuaren 9an.

**Alejandro Sansiñena Iribarren**, Elizondokoa, abuztuaren 16an.

**Jon Zugarramurdi Santxotena**, Erratzukoa, abuztuaren 13an.

**Leire Barrenetxe Sanchez**, Azpilkue-takoa, abuztuaren 18an.

**Mikel Santos Garrues**, Elizondokoa, abuztuaren 16an.

**HERIOTZAK**

**Ramon Zubillaga Azpiroz**, Zugarramurdiak, abuztuaren 21ean, 70 urte.

**Felipe Etxarte Abanz**, Lesakakoa, abuztuaren 12an, 74 urte.

**Eusebio Zestau Zestau**, Leizakoa, abuztuaren 10ean, 90 urte.

**Lorenzo Zubitur Zestau**, Leizakoa, abuztuaren 25ean, 65 urte.

**Margarita Gomez Montero**, Goizuetakoa, abuztuaren 24an, 86 urte.

**Juan Gastarena Mariezkurrena**, Ezkurrakoa, abuztuaren 4an, 87 urte.

**Patxi Mariezkurrena Elizalde**, Eratsungoa, abuztuaren 3an, 43 urte.

**Itxaso Larretxea Elizondo**, Doneztebekoa, abuztuaren 23an, 3 urte.

**Miguel Jose Meoki Ariztia**, Doneztebekoa, abuztuaren 24an, 48 urte.

**Jose Ibarra Petrirena**, Doneztebekoa, irailaren 1ean, 84 urte.

**Faustina Azparren Urrutia**, Berakoa, abuztuaren 21ean, 95 urte.

**Jose Antonio Barrero Elgoibar**, Berakoa, abuztuaren 2an, 84 urte.

**Dolores Agirre Irazoki**, Berakoa, abuztuaren 7an, 64 urte.

**Jose M<sup>a</sup> Aranbillet Irazoki**, Berakoa, abuztuaren 5ean, 53 urte.

**Claudio Goia Retegi**, Berakoa, abuztuaren 28an, 73 urte.

**Villar Berruezo Araiz**, Elizondon, abuztuaren 8an, 73 urte.

**Rosalía Salinas Izpura**, Elizondon, abuztuaren 27an, 82 urte.

**Cecilia Concepción Salinas Beorlegi**, Elizondon, abuztuaren 30ean, 90 urte.

**Julian Istilart Arriada**, Arizkungoa, abuztuaren 30ean, 84 urte.

**ZORIONAK!**

Gure oparia ematean lehenak izan nahi dugu



Haurtoa jaiotzean eta berehala etor zaitez Iruñeko Kutxara. Saskitxo-aldatzaile hau, haur-garbitzarako produktuez bete, emango dizugu.

Ez ahanzi familiaren liburuzka!



**SOULE**

**Hileta artea**

Tfnoak: 453444 • 908. 779903  
**ARIZKUN**



**BAZTAN FUNERARIA**

EHORZKETA ZERBITZUAK • HILKUTXEN  
ERAKUSKETA ETA SALMENTA • TRASLADOAK  
Jaime Urrutia 53 • ELIZONDO  
Tfnoak: 580373 • (908) 776176



## Nafarroako Trikitilarien IV. Txapelketa

# Jone eta Joxe Mari Elgorriaga lesakarrak txapeldun

Partehartzaileen gaztetasuna eta Sakanako bikoteen falta nabarmendu ziren Lakuntzan



Taulagainera goitu ziren bikote guziaz elkarrekin, tartean txapeldunak, Elgorriaga anaiarrebak.

Jone Elgorriagak bigarren urtez segidan jauntzi zuen Nafarroako Trikitilarien txapela, aurtengoan bikotez aldatu badu ere. Epaimahakideek bera eta bere anaiari eman zizkieten puntu gehien abuztuaren 24an Lakuntzan ospatutako finalean.

Bigarren postua Nerea Erbiti eta Melani Eskudero leitzarrek esku-ratu zuten, irabazleengandik 3 puntura, eta hirugarren Berako Joseba eta Amaia Irastorza sailkatu ziren, dezi-ma bat gehiagorekin.

Bi izan dira aurtengo txapelketa honen ezaugarri nagusiak. Batetik, Sakana aldeko bikoterik ez apuntatu izana, kontuan izanik Nafarroan trikitixa nonbait errotua baldin badago alderdi horretan dela. Martxel Ansa, txapelketaren antolatzaileetako batek, «Sakanakoek

aurtengoan ez zutela ateratzeko asmorik esan ziguten, beste era batean lanean hasi behar zutelako, erromerietan-eta, eta txapelketa kilikolo gelditu zen» adierazi digu. «Horrek txapelketaren kalidadea jaitxi egin du, baina eraberean aukera eman die beste bikote batzuei».

Txapelketako bertze ezaugarria trikitilarien gaztetasuna izan da, trikitixa eskolen lana gero eta emankorrago bihurtzen ari den seinale.

### Epaimahaiaren lanari buruz

Bertzalde, zenbait arrenkura somatu dira epaimahaiaren puntuaketarengatik, eta zentzu honetan Martxel Ansa zera azpimarratu nahi izan du, «epaimahaia bere lana ahalik eta hobekien betetzen saiatu da, baina beti dago norbait gustora gelditzen

ez dena. Betitikan dugun kritikada hori, eta nahiz aurtun epaimahaiaren jende berria sartu den, ez dugu, nonbait, gure nahia lortzen. Guk puntuazioan ikusten dugu halako deskontentsazio bat; balseak argi uzten saiatu ginen baina gero pertsona batzuen balorazioa sartzen da hor eta batzutan ez da asmatzen. Minduta geratu denari barkamenak eskatu nahi dizkiot, eta argi utzi intentzio txarrik ez dela izan inondik ere».

### Fetxa aldaketa

Hasiera batean finala igande honetan Altsasun ospatzekoa zen, Santakruz jaietan, «baina hango udaletik deitu ziguten arazoak zue-dela esanez». Hori ikusita, beste egun eta toki bat bilatzen hasi ziren antolatzaileak. «Orduan suertatu zizaugun

Lakuntzatik deia, jaietako egitarauan nolabaiteko hutsunea zutela eta ea animatzen ginen finala han egitera. Horrexegatik etorri da aurrerapena», argitu digu Martxel Ansa.

## flash

### Margo erakusketak

Ana Marinen erakusketak heldu den astelehenerarte egonen da zabalik Elizondoko Bergarenea etxean. Sagrario Aragón, M<sup>a</sup> Jesus Cabodevilla, M<sup>a</sup> Victoria Mendiburu eta Lily Navarida margolariena, berriz, hilaren 19rarte, Arizkunenea Kultur Etxean.

Leku berdinean, baina irailaren 24an hasi eta urriaren 8rarte Elisa Muñozek bere margoak erakutsiko ditu. Elgorriagako Kultur Etxean ere izanen da zer ikusi, Josetxo Lamyren erakusketa zabalik izanen baita heldu den iganderarte.



## AZKEN SAILKAPENA

Jone Elgorriaga (Lesaka)	
Joxe Mari Elgorriaga (Lesaka)	93,9
Nerea Erbiti (Leitza)	
Melani Eskudero (Leitza)	90,8
Amaia Irastorza (Bera)	
Joseba Irastorza (Bera)	90,7
Oihana Almandoz (Lesaka)	
Nagore Ansalas (Etxalar)	87,6
Olatz Irigoien (Arantza)	
Leire Amoros (Arantza)	86,5
Irune Zabala (Goizueta)	
Patxi Zabala (Goizueta)	84,9
Nekane Etxandi (Lesaka)	
Jasone Mitxeltorena (Etxalar)	83,8
Josune Pikabea (Bera)	
Julen Zelaieta (Bera)	80,4





Gure Txokoaren VII. Igeriketa Txapelketan parte hartu zutenak

## Baztan Bidasoako selekzioak emaitza onak lortu ditu Nafarroako X. Kirol Jokoetan

- Banaka ez ezik erreleboko probetan ere dominak lortu dituzte
- Selekzioa osatzeko probak Berako igerilekuan egin ziren abuztuaren 23an

Abuztuaren 30ean Gel-bentzun ospatu ziren Nafarroako X. Kirol Jokoetan lan polita egin dute Baztan Bidasoako igeriketa selekzioko partaideek. Selekzioa osatzeko, abuztuaren 23an Berako igerilekuan elkarren artean lehiatu ziren zonaldeko hainbat gazte, alebin eta infantil kategoriakoak. Saio honetatik 15 neska-mutil izan ziren hautatuak Iruñera joateko; Endika Martin, Aritz Jaurena, Ibai Elizalde, Iker Loitegi, Iñaki Etxegarai, Unai Gomez, Ander Rodriguez, Xabi Alzuri, Joseba Errandonea, Naroa Plaza, Zaira Latasa, Lorea Sarobe, Ane Alberro, Ane Bergara eta Udane Cabezas.

### Emaitza onak

Iruñera joan zirenetatik, bakar batzuek soilik ekarri ahal izan zuten dominaren bat etxe-

rat. Erran behar da partehar-tzaile bakotzak ezin zuela bi proba baino gehiagotan izena eman. Nesken artean, Ane Bergara beratarrak lehen postua lortu zuen bular-igeriketa modalitatean (25 m.), eta bigarrena tximeleta eran. Udane Cabezas leitzarra lehena izan zen parte hartu zuen bi probetan, bizkar-igeriketako 25 metroetan eta 50 metro libreetan, alegia. Ane Alberro elbetarrak ere, zilarrezko eta brontzezko dominak eskuratu zituen (25 m. bizkar-eran eta 25m. libreak). Mutiletan, Ander Rodriguez beratarra izan zen dominak lortu zituen bakarra (25 m. libreetan brontzea eta bular-igeriketan zilarra).

### Erreleboetan bikain

Azkenik, Baztan Bidasoako selekzioa errelebo probetan

punta puntan ibili zen. Estilo mistoetan, Udane Cabezas, Ane Bergara, Joseba Errandonea (Bera) eta Ander Rodriguezek osatzen zuten taldea irabazle suertatu zen, eta libre mistoetan talde berdina aurkeztu zen, baina Joseba Errandonearen tokian Ane Alberrok egin zuen igeri. Proba honetan 3. sailkatu ziren Baztan-Bidasoakoak.

Aritz Perez, aurten entrena-tzaile lanak egiten dituen beratarra kontent dago bere taldearen lanarekin, «hagitz ongi aritu dira denak, batez ere erreleboetan. Neretzako ezzen zaila izan erreleboetako taldea osatzea. Dominak lortu dituztenak aukeratu nituen, eta errax xamar irabazi dute». Iruña eta Tafalla alde horretako gazteek puskaz maila hobeza dutela dio Baztan Bi-

dasoako taldearen entrena-tzaileak, «aunitz nabaritzen da urte osoan entrenatzen dutela, igerileku estaliak dituztelako. Hemengoek, berriz, udan bakarrik egiten ahal dute igeri, eta gutti, eguraldi txarra izaten delako aumiztan». Hala ere, ba omen da urte osoan entrenatzen aritzen denik, «Udane eta Ane Bergara, adibidez, urte osoan zehar Tolosa eta Irungo piscina estalietara joaten dira entrenatzera, eta gero ikusten da».

### Gure Txokoaren VII. Igeriketa Txapelketa

Bertzalde, abuztuaren 28an Gure Txokoak antolatzen duen igeriketa txapelketaren VII. edizioa burutu zen Berako igerilekuan, eta bertan eskualde guziko igerilariak lehiatu ziren, argazkian ikusten ahal den bezala, giro onean.



# Hendaiako Egiazabal nagusi Saran Kontrabandisten laisterketan

- Hogeita hamabortzgarren edizioa bete zuen Sarako probak
- Beroaren eraginez, bi korrikalari anbulantzia eraman zituzten

Abuztuaren 24an burutu zen Sarako Kontrabandisten Krossean Hendaiako Fabrice Egiazabal nagusitu zen. Azken bi urtetan irabazle izan den Angel Azpiolea irundarrak baino 2 minutu eta 48 segundu gutiago behar izan zituen 9 kilometroko ibilbidea egiteko. Hirugarren postuan, Patxi Pikabea beratarra sartu zen.

Jakina denez, lehen kilometro terdian 8 kilo eraman behar dituzte laisterkalariak (4 kilo Maika Ariztegi, proban parte hartu zuen emakume bakarraren kasuan). Irteera Jean Aniotzbehare, Sarako auzapezak eman zuen, eskopeta tiro baten bitartez.

Egun horretan bero ikaragarria egin zuen Saran eta honek eraginez, denborak iaizkoak baino dextente txarra-



36 laisterkalariak, proba hasi baino lehenxeago

Diario de Noticias

goak izan ziren. Horrez gain, Berako Jaime Etxegarai eta Senpereko Paxkal Soudre Anbulantzia eraman behar izan zituzten.

Korrikalariak lanean ari ziren bitartean, Sarako aitzin paretan artisauen produktuen feria burutu zen eta Lesakako trikitilariak ari-tu ziren.

## Hamarkadako irabazleak

1990	Joxe Oronoz (Sara)	40'50"
1991	Mixel Larzabal (Sara)	45'37"
1992	Juan Manuel Irazoki (Bera)	41'09"
1993	Patxi Pikabea (Bera)	42'30"
1994	Mixel Larzabal (Sara)	41'53"
1995	Angel Azpiolea (Irun)	41'11"
1996	Angel Azpiolea (Irun)	41'25"
1997	Fabrice Egiazabal	44'10"

**Errekorra:** Joxe Oronoz (Sara, 1988an) 40'26"


**Irabazle nagusiak:** Ricardo Toro (Irun, 5 aldiz), Gabi Etxart (Ezpeleta, 4 aldiz) eta Julian Mitxelena 'Barraka' (Lesaka, 3 aldiz)

## Jaunarena zubietarrak ustekabea eman zuen Nafarroako aizkolari txapelketaren kanporaketan

Zubietako Antonio Jaunarena izan zen bizkorrena Lakuntzan abuztuaren 24an burututako Nafarroako lehen mailako aizkolari txapelketaren kanporaketan. Bortz egurrak mozten 12' eta 59" behar izan zituen. Gibeletik Mikel Mindegia (13'27"), Floren Nazabal (14'44"), Donato Larretxea (14'54") eta Antonio Senosiain (16'08") sailkatu ziren Leitzako finalerako.

Ezkurrako Patxi Mindegia, Sunbillako Felix Etxeberia eta Zubietako Joxeantonio Loiarte finaletik kanpo gelditu ziren, Joxejuan Barberena eta Juan Jose Lopez bezalaxe.

Ezustekorik haundiena, noski, Jaunarenaren erakustaldia izan zen. Iaz zorte txarra izan zuen egurrekin eta finaletik kanpo gelditu zen, baina aurtan ederki prestatua plazaratu dela erakutsi zuen.



Jaunarenak finalerako txartela lortu du aurten Egin

## BOITE

- ❖ **Unai Barazabalek garaipen berria**  
lortu zuen abuztuaren 23an, Gesalatzko IV. sarian. Sigma taldeko txirrindulari aspilkuetarra hogeigarren kilometroan aldegin zuen tropeletik eta laisterketaz gain, tarte-helmugen eta mendiko saria irabazi zuen.
- ❖ **Bautista Telletxea**  
korrikalari beratarra nagusitu zen Berako Luis Apeztegia memoriaren 16. edizioan. Beteranotetan Martin Juankotenak irabazi zuen eta jubenetan Imanol Zubietak. Gainerako irabazleak Ana Serrano eta Asier Garcia (benjaminak), Irantzu Etxebeste eta Gwendal Larque (alebinkak) eta Alazne Otxoteko eta Carlos de la Fuente (infantilak) izan ziren.

## ❖ Narbarte III. San Andres

txirrindulari Sarian, Irabia taldeko Ion Arrieta nagusitu zen. Kadete mailako proba honetan 61 kilometroko ibilbidea bete behar zuten txirrindulariek.

- ❖ **Luis Mari Belarra**  
aizkolari doneztebarra izan da onena Euskal Herriko hirugarren mailako aizkolari txapelketaren lehen kanporaketan eta finalerako txartela eskuratu du. Doneztebarrak 9'49" behar izan zituen Baños de Ebro herrian, pinu egurreko lau kanaerdi-koak mozteko.



# AGENDA EGUNEZ EGUN

## BESTAK

### ELBETE

#### ► Irailaren 12tik

**16ra** Xehetasunak 23. orrialdean.

### ILLEKUETA

#### ► Irailaren 14 eta

**15a** Xehetasunak 11. orrialdean.

### SARA

#### ► Buruilaren 13tik

**17rat** Xehetasunak 25. orrialdean.

## ERAKUSKETAK

### ELIZONDO

#### ► Irailaren 5etik 9a

**artio** Sagrario Aragón, M<sup>a</sup> Jesús Cabodevilla, M<sup>a</sup> Victoria Mendiburu eta Lily Navaridasek beren koadroak erakutsiko dituzte Arizkunenean, arratseko 7etatik 9ak arte. Igan-deetan itxita.

#### ► Irailaren 15a bi-

**tarte** Ana Marinen erakusketa ikusgai izanen da Bergarenea etxean.

#### ► Irailaren 24tik

**urriaren 8arte** Elisa Muñoz margolariaren lanak ikusgai Arizkunenean Kultur Etxean.

## DIAPOSITIBAK

### BERA

#### ► Irailaren 19an

arratsaldeko 8etan Peruko Andeatoko espedizioa osatu zuten lagunek, musikaz lagundutako diapositiba emanaldia eskeiniko dute Berako Kultur Etxean.

# AGENDA PRAKTIKOA

## BASERRIA



### ❖ ZERRIKIA ❖

- **Zerrikumea** (20 kilokoa): 5.000 pta.
- **Zerri gizona** (95-100): 230 pta./kilo
- **Zerramak**: 146 pta./kilo bizirik.



### ❖ BEHIKIA ❖

- **Aretze gizenak**
  - **Idixkoak**: Pta./kg. Kanal
- |             |      |
|-------------|------|
| Extra ..... | .530 |
| 1.koa ..... | .510 |
| 2.koa ..... | .480 |

- **Urruxak**: Pta./kg. Kanal

Extra .....	.550
1.koa .....	.520
2.koa .....	.480

Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 kg. dituzten urruxentzako.

- **Aretze ttikiak**

(15 egun ingurukoak):

**Nabarrak**: urruxak 13.000 eta idixkoak 24.000 Pta.

**Mestizoak**: urruxak 23.000 eta idixkoak 35.000 Pta.

- **Behi zaharrak**:

Behi nabar gizona: 360 Pta./Kg. Kanal. Behi gorri ona: 400 Pta./Kg. Kanal.

DATU ITURRIA: EHNE



Saldiasko Karrika Nagusia.

## HAMABOSTALDIKO GOMENDIOA

### Euskararen

### Eguna Saldiasen

Malerrekako euskara taldeak, Langarrak, Euskararen Egunaren bigarren edizioa antolatu du, laz Donamarian egindako besta aurten Saldiasera aldatu dute, eta irailaren 20an izanen da zita, Iturenen Joaldunen Eguna ospatzen den egun berebean, hain zuzen ere.

Hainbat ekitaldi kultural burutuko dira Saldiasen, haurrentzako jokoekin hasita, Trokolo taldearen antzerki emanaldiarekin segitu eta ilunabarrean eginen den bertso afariarekin akitzeko.

Akitzeko? Ez, ez... gero Oiarzungo Sarats tritilarien eskutik bestari segida emanen zaio eta. Arratsalde partean Larrakaitz txarangak joko duela ere badakigu.

Lau urte bete ditu aurten Langarrak, eta Malerreka eskualde arras euskalduna izanda ere (%90a ia), kontzientziazioa eskas da, eta arlo horretan egingen dute lan gehien Langarrako kideek.

## LIBURUAK



«Beirazko giltzak»  
Jaime Fuster  
ELKAR

Literaturak beti izan du jolasetik zerbait, are gehiago literatura poliziakoak, intrigak sortzen duen jakinmina kilikagarria izaten baita irakurlearentzat. Liburu hau, berriz, joko eta dibertimendua da goitik behera, irakurleari parte hartu eta barruan sartzeko proposatzen diona, istorioetako gakoa berak asma dezan. Beirazko giltzak ipuin-bilduma osatzen duten hamazazpi kontakizunetan barrena, era

guztietako jende eta giroak eza-gutuko ditugu Lluís Arquer detektibearten eskutik: Bartzelonako putetxeak, drogazaleak, politikoak, langile eta ugazabak, akademiakoak, rockeroak, fraideak, senar-emazteak... Denetan izango da misterioaren bat: dela hilketa, lapurreta, desagertze edo bahiketa... Itzulpen honi eskerrak Katalunian idazle ospetsu hau lehen aldiz irakurtzen ahal da euskaraz.



## GERTAERAK ETA BITXIKERIAK

### Aurtengo Bidasoako erregea

Zalain Zokoko Joxek 7 izokin ateri ditu aurtengo denboraldian, eta horrela, aurten Bidasoan arrantzatu diren 38 izokinetatik gehien ateri dituen arrantzalea dugu argazkian ageri den gizona. 76 urterekin oraindik sasoi ederrean dagoela erakutsi du, nahiz eta berak aitortu digunez «*suerte haundi xamarra*» izan duen.

Zazpi izokin horietatik 5 Iruñean saldu zituen, Hartza jatetxeari hain zuzen ere, «*eta bertze biak etxean jan ditugu*». Zizare-amuarekin harrapatu ditu denak ere, eta haundienak 4 kilo terdi zituela erran digu Joxek, eta bertzeek 2-3 kilo inguru. Iazko denboraldian 4 izokin eraman zituen etxera, baina aurtengoan bere markarik onena gainditu du. Arrantza denboraldia aspaldian bukatu baldin bazen ere, berria orain ailegatu da gure belarrietara, eta gauza jakina da; hobe berandu ezen inoiz ez. Zorionak Joxe!



### Bera Alemanian?

Bistan duzun eskutitz hau ez zen berehalakoan gure eskuetara ailegatu, Saratik igorria izan arren. Saran zigilatu zuten ekainaren 27an eta Berarat ia bi hilabete beranduago ailegatu. Zergatik? Postariak ez zuen, nonbait, bere herriaren hegoaldean, muga eginez dagoen herria eza gutzen eta Alemanian zegoela pentsatu zuen (!). Hori ageri da, bederen, itzultzerakoan jarritako azalpenean –helbide hori ez da Alemaniako Errepublika Federalean esistitzen–. Azkenean, helbidearen behegian *Espagne* paratu eta moldatu ziren, itxura batean.

### DISKAK



#### «AURTENGO GORAKADA»

Bilduma  
GOR

Gor disketeak-bista haundiz-udarako espreski atera zuen bilduma hau izan da Euskal Herriko ostatu eta txoznetan gehien aditu den diska, bate-re dudarik gabe. Gainera, tartean sartu duten abesti famatu horrek *-goazen, goazen-* solasbide ugari eman du, eta gustatu edo ez, euskal bakailu erradikala (?) ase arte dastatu dugu hango eta hemengo beste-

tan ibili garenok. Aski ezaguna egin da, eraberean, Komak bertsioneatu duen *Marea Gora* abestia, eta ezin burutik kendu Skalariak taldearen *O, Neure Erri* itsekikorra ere. Aurtengo *gorakada*-k izan duen arrakasta ikusita, ez litzateke harrizkoa izanzen datorren urterako gisa honetako udako mix bat baino gehiago karrikatzea. Iztzekoa, ezta hala?

# AGENDA EGUNEZ EGUN

## OSPAKIZUNAK

### SALDIAS

#### ► Irailaren 20an

Euskararen Eguna antolatatu du Langarrak. Xehetasunak 18. orrialdean.

### ITUREN

#### ► Irailaren 20an

Joladunen Eguna ospatuko dute. Xehetasunak 18. orrialdean.

### GOIZUETA

#### ► Irailaren 12an

«Tropikaña» jaia antolatatu dute Iskibi kanpinetakoek. Musika festa.

## MENDI IRTEERAK

### BERA

#### ► Agerra Mendi

**Taldekoak** Ordesara joanen dira, Monte Perdido goitzeko asmoz. Agerratik aterako dira bihar ilunabarrean, eta larunbat goizean goituko dute Perdido. Gava kaxkoan pasatuko dute. Apuntatzeko edo informazioa eskatzeko 630362 telefonora deitu (Xabier).

## GUARDIAKO BOTIKAK

061 Tfnora. deitu behar da

#### ► Irailaren 8tik 14ra

Lesaka, Sunbilla, Elizondo (Lezaun), Leitza eta Goizuetan.

#### ► Irailaren 15etik 21era

Bera, Ituren, Elizondo (Iturralde), Goizuetan.

#### ► Irailaren 22tik 28ra

Ettxalar, Narbarte, Elizondo (Lezaun), Urdaubi eta Goizuetan.



## ETXEBIZITZAK

- 101. Saldu
- 102. Erosi
- 103. Errentan emateko
- 104. Errentan hartzeko
- 105. Etxe konpartituak
- 106. Bertzelakoak

## GARAJEAK / LOKALAK

- 107. Saldu
- 108. Erosi
- 109. Errentan emateko
- 110. Errentan hartzeko
- 111. Bertzelakoak

## LURRAK / ORUBEAK

- 112. Saldu
- 113. Erosi
- 114. Errentan emateko

**zein erraza den zure anuntzioa hemen jartzea...**

Hegoaldetik deitzeko 948-  
Iparraldetik 00-34-48

# 631188



**...eta gainera, zure berri zonako etxe guzietan izanen dute!!**

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. **ttipi-ttapa** ez du bere gain hartzen dohainik argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik.

- 115. Errentan hartzeko
- 116. Bertzelakoak

## ZERBITZUAK

- 201. Hargin/Igeltseroak
- 202. Pintoreak

- 203. Elektrizistak
- 204. Iturginak
- 205. Zurginak
- 206. Mendi lanak
- 207. Garraioak
- 208. Bertzelakoak

## LANA

- 301. Eskariak
- 302. Eskaintzak

## IRAKASKUNTZA

- 401. Eskaintzak
- 402. Akademiak

## MOTORRA

- 501. Salerosketak
- 502. Tailerrak

## ANIMALIAK

- 601. Salerosketak
- 602. Emateko
- 603. Klinikak

## DENETARIK

- 701. Galdu / aurkituak
- 702. Salerosketak
- 703. Bertzelakoak

## HARREMANAK

## ETXEBIZITZAK

### 101 SALDU

**BERA.** Pisua salgai. Sukaldea, gela bat eta bi bainu moblezatuak, bertzeak ez. Ganbarearekin. ☎ 630395.

**BERA.** Pisu duplexa salgai, hiru logela, sukalde berria, jantokia, egongela, bainua, aseoa, atiko ederra, garaje eta baratzea. 80m<sup>2</sup> inguru. ☎ 630353.

**BERA.** Pisua salgai. Bainua eta sukalde moblezatua. Eguzkitsua. ☎ 630508.

**OITZ.** Txaleta salgai, bizitzaren jartzeko prest dagoena, bere lur eremuarekin. ☎ 630048.

## ETXEBIZITZAK

### 102 EROSI

**BAZTAN-BIDASOAn,** Leizaldea edo Saraldean etxe bat edo lur-eremu bat erosiko nuke, herrietatik hurbil, oinez joateko moduan. ☎ 943-700477 (Asategunetz gauletan, eta asteburutan. M<sup>o</sup> Carmen).

**BAZTAN-BIDASOAn** Borda erosiko nuke. ☎ 943-551054.

## ETXEBIZITZAK

### 103 ERRENTAN EMAN

**ATARRABIA.** Pisua errentan emanen nuke. Moblezatua. Merke. ☎ 890366.

## ETXEBIZITZAK

### 104 ERRENTAN HARTU

**LESAKA** edo **ARANTZAN** etxe bat errentan hartuko nuke. Merke. ☎ 909-477277 (Imanol).

## ETXEBIZITZAK

### 105 ETXE KONPARTITUAK

**Neska bat** behar da Txantrea auzoan pisua osatzeko, irailaren 15etik aurrera. ☎ 128737.

**Leioan** pisua konpartitzeko pertsona bat behar du. ☎ 634040 Nerea.

**BURLATA.** Pisua konpartitzeko pertsona bat behar du. ☎ 581284 (denda orduetan).

**Pisu bat** osatzeko neska bat behar da, unibertsitatetik hurbil. ☎ 592227.

**DONOSTIA.** Pertsona bat behar da pisua osatzeko erdi aldean. ☎ 580462.

**BARAÑAIN.** Bi lagun behar dira pisua osatzeko. ☎ 510204-610791-610806.

## LURRAK/ORUBEAK

### 112 SALDU

**ARANTZA.** Etxea egiteko lurra salgai (2.000 m<sup>2</sup>). Kanposantu inguruan. ☎ (07-335) 59510694 Donibane Lohitzun.

**LESAKA.** Nabazko gainan, bide ondoan, lurra salgai, 6.000 m<sup>2</sup>, ☎ 637912.

## ZERBITZUAK

### 205 ZURGINAK

## ARANTZA ZYRGINDEGI<sup>A</sup>

Jose Miquel Errandonea  
Klase guztietako  
zurgin lanak

Osia auzoa ☎ 948-634068 • ARANTZA

## LANA

### 301 ESKARIAK

**Emakume batek** lan egiten luke arratsaldetan. ☎ 450923.

**Umeak zaindu** eta etxeko lanak egiten lan egiten nuke. ☎ 631124.

**Hogetailau urteko** neska bat edozein lanetan arituko litzateke asteburuetan. ☎ 631049 (Laura).

## IRAKASKUNTZA

### 401 ESKAINTZAK



Elizagibela, 7 Behea • ☎ 45 01 02

## DONEZTEBE

**Ingelesa ikasteko modurik errax eta atsegina**

Irakasle amerikarra, multimedia-ordenagailuak, bideoteka, etabur.

97-98 ikasturterako matrikula zabalik

## MOTORRA

### 501 SALEROSKETAK

## MENDAUR MOTOR

☎ 450333 • DONEZTEBE

**Bigarren eskuko kotxeak:**

- Renault Expres diesel eta gasolina.
- Suzukiak: Samurai eta Vitara

**Opel Vectra** 2.0 CD salgai. ☎ 631180 (eguerditan).

**Renault Express** gasolinazkoa salgai, SS-Z matrikula. ☎ 630328 edo 939-603038.

**Honda CRE 250** motoa salgai, matrikulatua. ☎

**NISSAN BERABI tailerrak**  
☎ 631445 • BERA

**Bigarren eskuko kotxeak:**

- Nissan Patrol, NA-P
- Nissan Patrol Top-Line
- Land Rover



☎ 63 11 57 • BERA

Stockean dauden ibilgailuen **LIKIDAZIOA**

Prezio bikainak:  
50.000 ptatik goiti

## Dieselak

Ford Fiesta 1800, 3 ate, 91koa.

## Gasolina

Ford Orion 1.8 Ghia, 93koa.

Ford Orion 1.4 4 atekoa.

Rover Montego 2.0 4 ate, 90koa.

Opel Ascona 1.8 5 ate, 86koa.

630766 (Ramón).

**Peugeot 306 S 16** salgai, 1995ekoa, extra guzietan. ☎ 630766 (Jose M<sup>o</sup>).

**Opel Corsa** salgai, 1.3 S, NA-V. 300.000 pta. ☎ 989-702048 edo 637382.



**Bigarren eskuko autoak salgai. Gasolina eta diesel.**

☎ 45 03 54 • DONEZTEBE

**Ford Fiesta L.** salgai, NA-J, 100.000 ptatan. ☎ 989-702048 edo 637382.

**Opel Calibra** 95ekoa salgai, ☎ 908-143470.

## ANIMALIAK

### 601 SALEROSKETAK

**Ehiza zakurkumeak** salgai, setter arrazakoak. ☎ 627618.

**Kollie** arrazako txakurrak salgai. 5.000 pezetetan baikoitza. Deitu 580813.



**Behor bat**, lanean hezia, salduko nuke. 5 urtekoa. ☎ 630736 (arratsaldetan, Beran).

**Zezen gorria** salgai, hiru urtekoa. ☎ 615093 (eguerdi eta gauetan).

**Haragitarako** aretze eta behiak erosi nahi nituzke. ☎ 450160.

**Etzeko behorra** saldu nahi-ko nuke, bere kumearekin. ☎ 450160.

**Ahari bat salgai**, mutur-gorria, 3 urtekoa eta adarduna. ☎ 610638 (Gaueko 10etatik aurrera).

**ANIMALIAK**  
**602 EMATEKO**

**Txakurkume** arra oparitu-ko nuke. Ama ardi-zakurra, eta atta seguruenik ere bai. ☎ 387063.

**DENETARIK**  
**702 SALEROSKETAK**

**Lur Hiztegi** entziklopedi-koa, labadora bat eta etxe-ko musika aparatua salgai. ☎ 909-477277 (Imanol).

**Gimnasia** egiteko bankua salgai, pesarekin. Prezio negoziagarria. ☎ 908-576504.

**Kaja registradora**, prezioak jartzeko makina, euli-hiltzeko elektriko, erakustokia eta estanteriak salduko nituzke. ☎ 453110 (Edozein ordutan).

**Josteko makina** elektriko salgai. ☎ 450056.

**1/8ko biolontxelo** salgai. ☎ 249898 Mikel edo Sonia (Eguerdiko edo iluntzean).

**HARREMANAK**  
**801 AGURRAK**

**Iuritako Ana Garateri**: zorionak abuztuaren 9an urteak bete dituzulako. Urte askotarako, zure lagun

baten partez.  
**Iruñeko Txondori**: zorionak abuztuaren 15ean urteak bete dituzulako. Ia noiz goanbidatzen duzun txanpan kopa batera. Baztan.

**Berroetako Patxiri**: zorionak behingoz mahaia garbitzen saiatu zarelako. V.U.ko plantilla.

**Etxalarko Joxe Ramon Goienetxeri**: aunitz gostatatu zait zuk egindako oparia. Laister elkarrekin pasatuko ditugu oporrak. Joxeparen partetik.

**Narbarteko Lurdes A.ri**: Abuztuaren 7an 17 urte bete dituzula? Zorionak Kañeron partez eta ea gehiago betetzen dituzun gure artean, erran bezala, txanpain botil handi batekin agergu naiz, muxu handi handi bat.

**Lurdes Argaineri** zorionak bere 17. urtebetetzean, zuk dakizun bikote baten partetik. Abuztuaren 15ean ahal den hoberen ospatu dugu.

**Goizuetako Anari** zorionak irailaren 1ean urteak egin zituelako. Bere familia eta iloba Juan. Merienda goxoa prestatu. Muxu handi bat Joxe Mariren partez.

**Nerea Erbiti Larraide eta Melani Eskudero Mitxelneri**: zorionak eta segi horrela. Oso ongi jotzen duzue trikitixa eta panderoa. Neretzat zuek zarete txapeldunak. Lesakar baten partez.

**Lesakako Mikel Oiartzabaleri**: ez pentsa zutaz ahaztu garenik. Oraindik ere zure atzetik goaz. Zure ipurdia gero eta politagoa dago. Munduko mutikorik sexiena zara. Muxu bat. Zure miresleak.

**Mugaireko Karmele Otxandorenari**: Zorionak 15 urte betetzen dituzulako.

**URTEBETETZEAK**

Argazkiak berreskuratu nahi badituzue, bidali zuen helbidea eta selloa ere, edo nahiago baduzue pasatu gure bulegotik.



**Maider Salaberria Orbegozo** goizuetarrak 3 urte beteko ditu irailaren 22an. Zorionak zure familiaren partez.



**Garbiñe Jorajuria Bazterrika** donamariarrak 10 urte beteko ditu irailaren 24an. Zorionak familia guziaren partez.



**Nerea Apeztegia Mendiberri** lesakarrak 15 urte bete ditu irailaren 3an. Zorionak etxekeoren partez.



**Luixa Mujika Tomasena** elizondarrak 4 urte bete ditu irailaren 4an. Zorionak bere familiaren partez.



**Itziar Jorajuria eta Ainara Mendiburuk** 3 eta 5 urte bete dituzte irailaren 9an. Aunitz urtez, beren guraso eta Ainhoaren partez.



**Iraitz Apeztegia Lujanbio** goizuetarrak irailaren 4an bi urte egin ditu. Zorionak familia guziaren partez.



**Josu Taberna Telletxea** igantziarrak maiatzaren 19an beteko ditu 9 urte. Zorionak zure familiaren partez.



**Eneritz Arozena** goizuetarrak 16 urte bete ditu irailaren 5ean. Zorionak bere familiaren partez.



**David Loiarte Perurena** goizuetarrak 6 urte bete ditu irailaren 7an. Zorionak bere familiaren partez.



**Beñat Ezkieta Huizi** atarrabiarak 2 urte beteko ditu irailaren 26an. Zorionak eta aunitz urtez Mikel eta gurasoen partez.



**Nagore Arretxea** beratarrak 16 urte beteko ditu irailaren 19an. Zorionak Narbarte eta Mugaireko lagunaren partez. Ongi pasa.



**Julen Oskoz Elizondo** arantzarrak 7 urte egin ditu irailaren 11n. Zorionak eta muxu bat familiaren partez.

**OHARRA:**

*Argazkia urtebetetze egunetik ahalik eta hurbilen ateratzeko, tenorez bidali behar diguzue guri. Ahal bada, urtebetetze eguna baino 20 egun lehenagotik.*



**Itsaso Alcalde Etxepare** lesakarrak 5 urte beteko ditu irailaren 18an. Zorionak zure familiaren partez.



**Elixabet Irazoki** beratarrak 5 urte beteko ditu irailaren 18an. Muxu handi bat familiaren partez. Zorionak Xasa.

Narbate eta Berako lagunak. Ongi pasa.

**Mugaireko Aintzane Salaberri**: Zorionak 15 urte betetzen dituzulako. Narbate eta Berako lagunaren partez. Musu handi bat.



**Herriko Ostata eta etxebizitzaren alokatzea**

Iturengo Udalak, Herriko Ostata eta etxebizitza errentan atera nahi ditu honako baldintza hauen arabera:  
**Iraupena:** 10 urte, bertze borts luzagarriak.  
**Errenta:** • Sarrera 2.500.000 pta. (gehi %16ko BEZa)  
• Hilabetero 70.000 pta (gehi %16ko BEZa)

Eskeintzak irailaren 18ko eguerdiko 2ak baino lehen aurkeztu behar dira, Iturengo Herriko Etxean, 250.000 pezetako fidantzarrekin batera.

*Iturenen, 1997ko iraila, Alkatea, Jose Iparragirre Altamira*



Argazkiak berreskuratu nahi badituzue, bidali zuen helbidea eta selloa ere, edo nahiago baduzue pasatu gure bulegotik.



**Kepa Txopereña Conde**  
igantziarrak 3 urte bete ditu abuztuaren 12an. Zorionak Lesakako laguneren partez.



**Jabier Susperregi**  
lesakarrak 6 urte bete ditu uztailaren 31n. Zorionak familiaren partez.



**Sara Zabalo Quillak**  
7 urte beteko ditu irailaren 12an. Zorionak aita, ama eta ahizpen partetik.



**Beñardo Yanci**  
lesakarrak 27 urte beteko ditu irailaren 14an. Zorionak zure emaztearen partez.



**Pello Bazterrika**  
sunbildarrak abuztuaren 25ean bete ditu urteak. Zorionak bere koadrila eta familiaren partez.



**Ane Baraibar Arratibel**  
aresoarrak abuztuaren 19an bete du lehen urtea. Zorionak guraso eta anaieren partez.



**Josune Gago Balda**  
doneztebarrak 4 urte bete ditu irailaren 3an. Zorionak eta muxu handi bat.



**Jabier Gago Balda**  
doneztebarrak 6 urte bete ditu abuztuaren 30ean. Zorionak eta muxu handi bat.



**Julen Alonso Apezteak**  
urte bat bete zuen uztailaren 25ean. Zorionak Goizuetao familiaren partez.



**Nerea Goñi**  
doneztebarrak 18 urte bete ditu abuztuaren 22an. Zorionak bere familiaren eta bereziki zure ilobaren partez.



**Lurdes Otxoteko Arozamena**  
burlatarrak urte gutxi batzuk bete ditu abuztuaren 20an. Zorionak A. ren partez.



**Irati Urreaga Otxoteko**  
burlatarrak 7 urte bete ditu abuztuaren 26an. Zorionak eta muxu aunitz, pottotti.



**Iker Sagastibeltza**  
leitzarrak urtea bete du abuztuaren 18an. Zorionak familiaren partez, bereziki Leire eta Nerea.



**Andoitz Azurmendi Sagastibeltza**  
leitzarrak urteak bete ditu abuztuaren 21ean. Zorionak familiaren eta zure anaien partez.



**Manuel Ballarena Iturregik**  
36 urte bete ditu abuztuaren 8an. Zorionak familiaren eta bereziki bere alabaren partez.



**Itziar Apezteak**  
goizuetarrak 25 urte bete zituen abuztuaren 8an. Muxu handi bat izaskun eta Juanen partetik.



**Joseba Angulo Lezamizek**  
irailak 9an bete ditu urteak. Zorionak Alex, aita eta amaren partez.



**Olatz Eskalada Lertxundi**  
elizondoarrak 10 urte bete ditu abuztuaren 16an. Zorionak eta muxu bat familiaren partez.



**Beñat**  
goizuetarrak 2 urte bete ditu abuztuaren 23an. Zorionak eta muxu handi bat etxeoan partetik.



**Koro Garate**  
ultzamarrak 27 urte bete ditu abuztuaren 25ean. Zorionak zure solaskideen partez eta besarkada bat.



**Sonia Taberna Iribarren**  
igantziarrak 8 urte bete ditu uztailaren 17an. Zorionak familia denaren partetik.



**Daniel Taberna Iribarren**  
igantziarrak 8 urte bete ditu abuztuaren 13an. Zorionak aita, ama eta Julen partetik.



**Jai**  
elizondoarrak urtea bete du abuztuaren 21ean. Zorionak bere familiaren partez. Guau, guau!



**Maritxu Jauregi**  
saratarri zorionak bere hemeretzigarren urtebetetzeagatik. Zure laguneren partetik.



**Ainhoa Elgorriaga Tombok**  
15 urte bete ditu irailaren 11n. Zorionak amaxi, guraso eta Urtziaren partez.



**Unai Ordoki Agesta**  
arantzarrak 11 urte bete ditu abuztuaren 20an. Zorionak zure familiaren partez.



**Iker Martin Urriza**  
elbetearrak abuztuaren 25ean 8 urte bete ditu. Zorionak eta muxu bat Endika anaia eta gurasoen partez.



**Ainhoa Lanz Ortego**  
beratarrak 8 urte bete ditu abuztuaren 19an. Zorionak moñoña, zure familiaren partez.



**Mª Luz Txoperena**  
lesakarrak urteak bete ditu abuztuaren 28an. Zorionak eta ongi pasa!



**Lorentxo Zabala Goizueta**  
goizuetarrak 9 urte bete ditu abuztuaren 22an. Zorionak familia guziaren partez.



**Josu Salaberria Goizueta**  
goizuetarrak 7 urte bete ditu abuztuak 11n. Zorionak gurasoen eta Ainararen partez.



**Ane Taberna Etxeberria**  
goizuetarrak 6 urte bete ditu abuztuaren 30ean. Zorionak familia guziaren partez.



**Mª Jesus Gogorza Jauregi**  
ezkurdarrak 15 urte bete ditu abuztuaren 16an. Zorionak ezkurako laguneren partez.



**Jean Paul Retegik**  
31 urte bete ditu abuztuaren 13an. Zorionak eta muxu bat Joakiren partez.



**Maite Jaurena Eulain**  
arizkundarrak 7 urte egin ditu abuztuaren 15ean. Zorionak familiaren partez.



**Loinez Iribarren Bertiz**  
exalartarrak 9 urte bete ditu abuztuaren 18an. Zorionak eta muxu handi bat familiaren partez.



**Francisco Iturralde**  
berroetarrak zorionak familiaren partez, abuztuaren 30ean urteak bete dituelakoz.



**Aritz Salaberria Mutuberria**  
goizuetarrak 7 urte bete ditu irailaren 11n. Zorionak Mikel eta gurasoen partez.



**Jokin Ezkieta Mendiburu**  
Mendillorrikoak, abuztuaren 17an urtea egin du, Zorionak Zigako familiaren partez.



**Idoia Bidart**  
erratzuarrak 22 urte bete ditu abuztuaren 7an. Zorionak koadrilaren partez.



**Josu Oteiza Iribarren**  
oronoztarrak irailaren 5ean bete ditu 2 urte. Zorionak eta muxu handi bat familiaren partez.



**Izaro Ubiria Rodriguez**  
irundarrak 2 urte beteko ditu irailaren 14an. Zorionak Asier lehengusuaeren partetik.



**Kontxi Aginaga Etxamendi**  
elizondarrak irailaren 2an beteko du urte bat. Zorionak.



**Gurutze Mariezkurrena Perotxenak**  
20 urte beteko ditu irailaren 14an. Zorionak Luis Mª, Leire, Arantxa eta gurasoen partez.



**Arantxa Barriola Telletxea**  
leitzarrak urteak bete ditu irailak 10ean. Zorionak Judith, Oinatz eta Birjiñaren partez.



**Maialen Apezteak**  
goizuetarrak 6 urte bete ditu abuztuaren 31n. Zorionak aita, ama eta Xabiñeren partez.



**Itsasne Eizagirre Zubieta**  
irundarrak 3 urte bete ditu irailaren 8an. Zorionak kolimero. Bere gurasoak eta familia. Musu handi bat.



**Unai Rodriges Korta**  
beratarrak abuztuaren 20an 7 urte bete ditu. Zorionak zure familiaren partez.



**Jose Mari Sarratea**  
urdazubitarrak 33 urte eginen ditu irailaren 12an. Zorionak eta muxu handi bat Aniren partez.



**Iñaki Castillo Lazkanotegi**  
beratarrak 38 urte beteko ditu irailaren 14an. Zorionak Patxi eta Gurutzeren partetik.



ZU ERE ANIMATU ETA...  
ZEURE HERRIKO EUSKALTEGIRA ETORRI!!

TELEFONUZ DEITU edo HURBIL ZAITEZ!!

  
*Bortziritako Euskaltegia*

Lesakako Matxinbeltzanean 637796

ETA

Berako Udaletxean (18,00etatik 20,00etara) 631105

  
*Leitzaldeko Euskaltegia*

Leitzako Udaletxean 610776

  
*Malerrekako Euskaltegia*

Doneztebeko Euskaltegian 451555

Matrikulazio epea: Urriaren 3a baino lehen



**Elizondon, irailaren 27an  
gaueko 10etan**


**BAZTAN  
Udal Frontoian**

# BENITTO LERTXUNDI

**+ Magali Zubillaga**

**Sarrerak: aitzinetik 1.000 Pta.  
takillan 1.200 Pta.**

**Salgai IRUÑEKO KUTXAko bulegoetan •  
ERRATZU: Zubipunta • Xorroxin Irratia,  
581226 Tfnoan. eta [ixa\\_ka@eusnet.org](mailto:ixa_ka@eusnet.org)**



BAZTAN  
BALLEKO ETXEA



**IRUÑEKO KUTXA**